

**KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAREN
TXOSTENA, EUSKAL INSTITUZIOEK 2018AN EUROPAR
BATASUNAREN AURREAN GAUZATUTAKO JARDUEREI
BURUZKOA**

AURKIBIDEA

I. TXOSTEN HONEN ZERGATIA

II. EUROPAR BATASUNAREN ORAINGO TESTUINGURUA

III. EUSKAL INSTITUZIOEK 2018. URTEAN EUROPAR BATASUNAREN AURREAN GAUZATUTAKO JARDUERAK

III.1. Eskualdeetako Lantaldea eta Euskadiren parte-hartzea

III.2. Europar Batasunaren Kontseiluan eta Europako Batzordearen Komiteetan izandako parte-hartzea

III.3. Gobernu-ekintzaren ondorioz EBren aurrean gauzatutako jarduerak:

- 1. Bisita instituzionalak**
- 2. Euskadiko hainbat alderdi European proiektatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoak EBko oraingo gaien inguruan kokatzea**
- 3. Beste bisita eta topaketa batzuk**
- 4. Konferentzietan eta eztabaidetan izandako esku-hartzea. Ekitaldi eta informazio-bileren antolaketa eta bertan izandako parte-hartzea**
- 5. EBrekin lotutako sare, erakunde eta foroetan egindako lana**
- 6. EBko zuzenbideko espedienteak jakinaraztea eta komunikatzea**
- 7. EBko gaiak komunikatzea eta hedatzea**

IV. MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZAREN ALORREAN GAUZATUTAKO JARDUERAK

V. ETORKIZUNEAN JARDUTEKO PROPOSAMENAK

A. Zeharkako izaera duten proposamenak

B. Alor sektorialera zuzendutako proposamenak

I. TXOSTEN HONEN ZERGATIA

2014ko irailean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak jarduera berri bati ekin zion, alegia, euskal instituzioek Europar Batasunaren (aurrerantzean EB) aurrean urtean zehar gauzatzen dituzten jarduerak Eusko Legebiltzarren aurrean aurkezteari. Hala, une hartan, euskal instituzioek 2013an EBren aurrean gauzatutako jarduerarik esanguratsuenak biltzen zituen txosten bat aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean; gainera, Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiak hala eskatuta, agerraldi bat egin zen txosten horren inguruan.

2015eko urrian, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak beste txosten bat aurkeztu zuen, 2014an gauzatutako jarduera nagusiekin. Bada, txosten hori ere jorratu zen Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiak Eusko Legebiltzarreko Europako Gaien eta Kanpo Harremanen Batzordearen aurrean egindako agerraldian.

2016an, 2017an eta 2018an, hurrenez hurren, 2015eko, 2016ko eta 2017ko jardueren txostenak idatzi ziren.

Oraingoan, 2018an gauzatutako jarduerari buruzko txosten hau aurkezten dugu.

Jardueren berezko xehetasunei heldu aurretik, Europar Batasunaren oraingo testuingurua (2018) aipatzen da modu laburrean, zeren hori lagungarria baita euskal instituzioek EBren aurrean gauzatutako jarduerak azaltzeko; txostenaren amaieran, berriz, etorkizunean jarduteko proposamen batzuk aurkezten dira.

II. EUROPAR BATASUNAREN ORAINGO TESTUINGURUA

Euskadiren iritzia Europaren etorkizunari buruz

Iñigo Urkullu Lehendakariak 2018ko martxoaren 9an aurkeztu zuen Europaren etorkizunari buruzko iritzia jasotzen duen dokumentua; izan ere, horrek Jean Claude Junckerrek 2017ko martxoan Europako etorkizunari buruz aurkeztutako Liburu Zuriarekin irekitako hausnarketan laguntzen du. Dokumentu honetan, Europar Batasun sozial bat defendatzen da, “pertsonak ekintzaren ardatz nagusi gisa kokatzen dituen”, joera federalekoa eta maila anitzeko gobernantza- eta subsidiariotasun-printzipioetan oinarritutakoa.

Dokumentuak Europar Batasunari buruzko ikuspegia islatzen du: partekatutako balio irmoetan oinarritutakoa, solidarioa planetako gainerako herriekin eta etorkizuneko belaunaldiekin konprometitua. Herritar aske eta berdinez osatutako Europa bat, bertako herrien topagunea, oparoa, merkatuko ekonomia sozialean oinarritutakoa eta gizarte-konpromiso irmoa duena. Dokumentuan ideia horiek jasotzen dira eta, horrez gain, 2017an zehar egindako “*herritarren elkarrizketen*” bidez, erakundeen, eragile ekonomikoen eta gizarte zibilaren ekarpena jasotzen da.

Testuak Europarekin lotutako zazpi bloke tematiko ditu: soziala; lehiakorra; ekonomiko-monetarioa; irekia eta solidarioa; jasangarria; politikoa; azkenik, Euskadiren iritziarekin ixten da.

Europa soziala

Austeritatearen paradigma gainditzea ahalbidetzen duten gizarte-dimentsioko politikak behar dira ongizate-sistemen bideragarritasunean laguntzeko eta gazteriaren, emakumeen eta iraupen luzeko langabeen laneratzea bezalako erronkei erantzuteko. Erronka demografikoari eta biztanleriaren zahartzeari erantzuteko proposamenak egiten dira, hain zuzen ere, familiak eta adiskidetzea babesteko politiken bitartez.

Europa lehiakorra

Gobernuak “benetako politika industrial” proposatzen du hazkunderako eta enplegurako ekarpen gisa. Horretarako, arreta berezia eman behar zaie ETEen beharrei eta puntako teknologiak babesten dituzten eta industria-, ingurumen- eta gizarte-erronkak gainditzeko laguntzen duten ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egin. Eusko Jaurlaritzak agenda komun bat proposatzen du industria-lehiakortasunaren alde.

Europa politikoa

Maila anitzeko gobernantza- eta subsidiarotasun-printzipioetan oinarritutako Europa politikoa defendatzen da, Lisboako Tratatutik, dimentsio deszentralizatu jaso duena. Maila anitzeko gobernantzari buruzko konbentzio bat eratzea proposatzen da, Europar Konbentzioaren subsidiarotasunari buruzko lantaldean egindako lanak berrartzen dituen, bereziki, Elkartutako Eskualdearen figuraren inguruko *Lamassoure* Txostena.

Brexita

2016ko ekainean, David Cameronek erreferendum baterako deia egin zuen, Erresuma Batuak Europar Batasunean (EB) jarraituko zuen edo ez erabakitzeko. Britainiar herritarren % 51,9k batasunaren bloketik ateratzearen alde bozkatu zuen. Ipar Irlandak, Eskoziak, Gibraltarrak eta Londresko gehiengoak EBn jarraitzearen alde bozkatu zuten. 2017ko martxoaren 13an, erreferendumaren ostean, Erresuma Batuko Parlamentuak onartu zuen Lehen Ministroari Europar Batasunarekin negoziatzen hasteko baimena ematen zion legea.

2017ko martxoaren 29an, orduko Erresuma Batuko lehen ministroa zen Theresa Mayk EBren Tratatuen 50. artikulua aktibatu zuen, Erresuma Batua EBtik ateratzeko prozesua martxan jarritz. Urte horretako ekainean, Batasunetik ateratzeko negoziazioak hasi ziren. Tratatuan aurreikusitakoaren arabera, prozesuak bi urte iraun behar zituen, hau da, 2019ko martxoaren 29ra arte. Adostu zen prozesua bi etapatan gauzatu zela eta etapa bakoitzean akordio bat lortuko zela aurreikusten zen. Lehenengoan, Europar Batasunetik ateratzeko akordioa negoziatuko zen eta, bigarrean, Etorbizuneko Harremani buruzko akordioa.

Aldeen arteko akordio bat lortzeko erantzukizuna Europar Batasuneko eta Erresuma Batuko negoziatio-taldeei esleitu zitzaion; lehenengoaren presidentea batzordekide ohia den Michel Barnier frantsesa zen eta bigarrenaren presidentea Erresuma Batuko Kanpo Harremanetarako orduko ministroa zen eta gerora ordeztu zuten David Davies.

Urtebeteko negoziatio gogorren ostean, 2018ko azaroaren erdialdean, Ateratzeko Akordioaren testu osoari eta Erresuma Batuaren eta Europar Batasunaren arteko etorkizuneko harremanarekin lotutako Adierazpen Politikoko proiektu bati buruzko akordio batera heldu ziren.

Ateratzeko Akordioak trantsizio-epe bat aurreikusten du, Erresuma Batua EBtik ateratzen denean hasiko dena eta 2020-12-31n amaituko dena. Epe hori behin bakarrik luzatu ahalko da.

Era berean, adostu zen Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzen zen egunean hasiko zirela etorkizuneko harremana ezartzeko akordioari buruzko negoziazio formalak.

Trantsizio-epean zehar, EBko legeria aplikatzen jarraituko da Erresuma Batuan, aduana-batasunaren eta merkatu bakarraren parte izango delako. Hala eta guztiz ere, Erresuma Batuak ez du bozkatzeko eskubiderik izango EBko erakundeen eta agentzien erabakiak hartzerakoan.

Gainera, Ateratzeko Akordioak denbora honetan negoziatu diren alderdi giltzarriak hartzen ditu barne, besteak beste, hauek: herritarren eskubideak, finantza-likidazioa eta Irlandako mugaren gai gatazkatsua.

Azaroaren 25ean, Ezohiko Europako Kontseiluak (50. artikulua) EBko eta Erresuma Batuko negoziazio-taldeek 2018ko azaroaren 14an hartutako Brexitaren Ateratzeko Akordioa berretsi zuen eta EBren eta Erresuma Batuaren arteko etorkizuneko harremanei buruzko adierazpen politikoa onetsi zuen.

Hortik aurrera, Europar Batasunak eta Erresuma Batuak akordioa berresteko prozesua hasi zen; azken horrek hori onetsi behar du bere konstituzio-xedapenekin bat eginez, kasu honetan, Erresuma Batuko Parlamentuaren onespenerekin. Prozesua espero zena baino konplexuagoa izaten ari da.

Horrela, 2016ko ekainaren 23an Erresuma Batuak Europar Batasunetik ateratzeko hartutako erabakiak 2018ko gertakarien erritmoa baldintzatu du Europar Batasunean eta, horrenbestez, EBko estatu kideetan.

Euskadi ez da axolagabe geratu erakundeen, ekonomiaren eta gizartearen eremuetan eta Europar Batasuneko guztiontzat ondorio nabarmenak eragingo dituen garrantzia handiko erabaki honen aurrean.

Testuinguru horretan, 2017an eratutako Brexitari buruzko Jarraipen Batzordearen lanarekin jarraitu da; euskal gizarteak horretan parte hartzen du. Batzordeak osaera mistoa du, hau da, publikoa eta pribatua; izan ere, herrialdeko administrazio publikoekin batera, ukitutako interes ekonomiko eta sozial nagusiak ordezkatzeko dituzten erakundeek ere parte hartzen dute bertan (merkataritza-ganberak, portu-agintaritzak eta unibertsitateak).

Batzordearen helburu nagusia da Erresuma Batua EBtik ateratzeak dituen ondorioak aztertzea, baita horrek euskal interesengan izango duen eragina aztertzea ere. Hau da, ahalik eta xehetasun handienaz ezagutzea zer ondorio izango dituzten negoziazioek, bai Erresuma Batuan bizi diren euskal herritarrengan, bai herrialde horretan ezarritako edo horrekin lotura estua duten euskal enpresa eta eragileengan.

Halaber, arreta ematen zaie Euskadin finkatuta dauden pertsona, enpresa eta eragile britainiarrei.

Batzordearen lanaren bitartez, Euskadik Brexitaren inguruan duen ikuspegi orokor bat lortu nahi da eta herrialde-estrategia bat adostu nahi da Erresuma Baturik gabeko EBri 2019tik aurrera sortuko zaizkion erronkei aurre egiteko. Prozesu osoan zehar, batzordeak iritziak trukatzeko foro gisa funtzionatuko du eta irekita egongo da bere kideen uste, kezka eta iradokizunak jasotzeko.

2017an ospatutako bi bilerez gain, batzordea beste bitan bildu da 2018an, hain zuzen ere, urtarrilaren 25ean eta urriaren 25ean.

Urte anitzeko Finantza-esparrua eta kohesio-politika

2018ko maiatzaren 2an, Europako Batzordeak 2021-2027 eperako Urte anitzeko Finantza-esparruaren proposamena aurkeztu zuen. Batzordeak 1135 000 milioiko epe luzerako aurrekontua proposatu zuen konpromiso-kreditutan (2018ko prezioetan) 2021 eta 2027 bitarteko eperako; zenbateko hori EU-27aren errenta nazional gordinaren % 1,11 da.

Politika desberdinei dagokienez, Urte anitzeko Finantza-esparruaren proposamenak Nekazaritza Politika Erkidearen eta Kohesio Politikaren finantzazioa murrizten du (% 5 inguru bi kasuetan), beste kapitulu batzuk areagotzeko eta lehentasun berriak finantzatzeko: eraldaketa digitalerako funtsak bederatzi aldiz biderkatzen dira; Erasmus+ Programara eta Europako Elkartasun Kidegora bideratutako aurrekontua bikoiztuko da eta partida handiago batekin indartzen da Europako mugikortasunari eta gazteriari dagokienez; Creative Europe Programaren aurrekontua handitzen da eta industria kultural eta sortzaileen pisu potentziala ainguratzen da, ikus-entzunezko sektorea barne; mugen kontrolerako gastua hirukoizten da eta 33.000 milioira heltzen da. Europar Batasunak mugako 10.000 polizien kontratazioa finantzatuko du 2027ra arte. Segurtasuneko gastua % 40 hazi da eta migrazio-krisia kudeatzeko funtsezkoa den kanpo harremanetarako ekintza % 26, 120.000 milioira helduz.

Europar Batasuneko Urte anitzeko Finantza-esparruari buruzko erabakia kontseiluak onetsi beharko du aho batez eta, horrez gain, Europako Parlamentuak onetsi beharko du. Egutegiari dagokionez, helburua da akordio bat lortzea 2019ko udazkenean Finlandiako Presidentziaren pean.

Bestalde, proposatutako berezko baliabide berrien saskian hauxe sartzen da: igorpen-eskubideen merkataritza-araubidetik datozen diru-sarreraren % 20a; sozietateen gaineko zergaren finkatutako zerga-oinarri komunari aplikatutako % 3ko erreferentziazko tipoa (apurka-apurka txertatuko litzateke, behin beharrezko legeria ezarrita); estatu kide bakoitzean birziklatu ez diren plastikozko ontzien hondakinen bolumenaren gainean kalkulaturako kontribuzio nazionala (0,80 euro kiloko). Berezko baliabide berri hauek, gutxi gorabehera, EBren guztizko aurrekontuaren % 12a izango dira.

Kohesio Politikari erreparatuz, Europako Batzordeak 2018ko maiatzaren 29an argitaratu zituen egiturazko eta inbertsioko funtsen arautegi-proposamenak 2021-2027 aldirako. Proposamen horiek Europako Parlamentuak eta EBko Kontseiluak aztertu dituzte. Oraindik behin betiko testuak adostu behar dira eta Urte anitzeko Finantza-esparruaren inguruko akordioa behar da, EBko funts eta programa guztien finantza-esleipena erabakiko duelako.

Proposamen berrien berritasun nagusien artean, nabarmendu behar da Xedapen Komunen Arautegiak 7 funts desberdin arautuko dituela: Kohesio Funtsa (FC), Itsas eta Arrantza Funtsa (FEMP), Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (FEDER), Europako Plus Gizarte Funtsa (FSE+), Asilo eta Migrazio Funtsa (FAMI), Mugak eta Bisa Kudeatzeko Tresna (IGFV), Barne Segurtasun Funtsa (FSI); oraingoan, horietatik kanpo geratu da Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (FEADER).

Nekazaritza Politika Erkidearen erreforma berria 3 arautegi-proposamenen bidez zehazten da: Estatu Kideek egin beharko dituzten Nekazaritza Politika Erkidearen plan estrategikoei buruzkoa (I eta II zutabe zaharrak multzokatuz); Nekazaritza Bermearen Europako Funtsaren (FEAGA) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (FEADER) kargurako finantzazioari, kudeaketari eta segimenduari buruzkoa eta merkatuen antolakuntza komunari eta eragin-ebaluazioei buruzkoa.

Ingurumena eta ekonomia zirkularra

Ingurumenari eta ekonomia zirkularrari dagokienez, 2018ak oso mugarri garrantzitsua ezarri du, argi berdea eman baitzitzaion plastikoen inguruko lehenengo Europako estrategiari. Plan berrien arabera, EBko merkatuko plastikozko ontzi guztiak birziklagarriak izan beharko dira 2030erako, erabilera bakarreko plastikoen kontsumoa murriztuko da eta mikroplastikoen nahitako erabilera mugatuko da.

Sarri, gaur egungo plastikoak ekoizteko, erabiltzeko eta desegiteko moduak planteamendu zirkularrago batetik etekin ekonomikoak lortzea eragozten du eta, gainera, kaltegarria da ingurumenarentzat. Xedea da ingurumena babestea eta, aldi berean, plastikoaren ekonomia berri baten oinarriak ezartzea; horretan, diseinuak eta produkzioak guztiz errespetatuko dituzte berrerabiltzeko, konpontzeko eta birziklatzeko beharrak eta, horrekin batera, material jasangarriagoak egingo dira.

Estrategia berriaren bidez, Europar Batasunak hauxe lortu nahi du: birziklatzea errentagarria izatea enpresentzat; hondakin plastikoak murriztea; itsasoko zaborrarekin amaitzea; material plastiko adimentsuagoak eta birziklatzeko errazagoak garatzeko inbertsioa eta berrikuntza sustatzea; birziklatzeko prozesuak eraginkorragoak izatea eta substantzia kaltegarriak eta birziklatutako plastikoen kutsatzaileak kontrolatzea eta ikuskatzea. Azkenik, aldaketa globala ere bultzatuko da,

mundu osoko bazkideekin elkarlanean arituz mundu mailako konponbideak bilatzeko eta nazioarteko arauak garatzeko.

Ekonomia

Europar Batasunean, politika ekonomikoen koordinazioa urtero sartzen da Europako Seihilekoaren zikloan. Ziklo hau urtearen amaieran hasten da, hau da, Europako Batzordeak hurrengo urterako lehentasunak ezartzen dituenean (Hazkundeari buruzko Etorkizuneko Urteko Azterlanean), eta hurrengo urrian amaitzen da, gobernu nazionalak aurrekontu-planen proiektuak aurkezten dituztenean; horietan, Kontseiluak udan egindako gomendioak hartzen dituzte kontuan.

Faseak honako hauek dira: urtearen amaieran, Batzordeak hurrengo urterako lehentasunak eta orientabideak aurkezten ditu; otsaila-martxoan, batzordeak EBko herrialde bakoitzaren txostenak argitaratzen ditu, non politika ekonomiko eta sozialak ebaluatzen dituen; apirilean, EBko herrialdeek erreformen programa nazionalak aurkezten dituzte eta egonkortasuneko edo konbergentziako programak (aurrekontu-lehentasunak jasotzen dituztenak). Batzordeak gomendatzen du programa hauek parlamentu nazionalen laguntzarekin egitea, baita alde interesdun guztien laguntzarekin ere, besteak beste, gizarte-elkarrizketakideak, eskualde eta toki mailako agintaritzak eta gizarte zibilaren antolakuntzak, dagokionaren arabera; maiatza-uztailean, herrialde bakoitzak egokitutako gomendio ekonomiko eta aurrekontu-gomendio batzuk jasotzen ditu eta, abuztua-urria bitartean, gobernu nazionalak gomendioak sartzen dituzte bere erreforma-planetan eta hurrengo urterako aurrekontu nazionaletan.

Horrela, martxoaren 7an, Europako Batzordeak egoera ekonomiko eta sozialaren urteko analisia aurkeztu zuen estatu kideetan; horretan, herrialde bakoitzarentzako gomendio espezifikoaren aplikazioaren aurrerapena eta balizko desoreka makroekonomikoen ebaluazioa jasotzen ziren. Batzordeak 27 txosten aurkeztu zituen herrialdeko (estatu kide guztientzat, Greziarentzat izan ezik, egonkortasuna babesteko programa espezifiko bat zegoelako). Lehenengo aldiz, herrialde bakoitzeko txostenek azpimarratzen zuten 2017ko azaroan onartutako Gizarte-eskubideen Europako Zutabearen lehentasunak sartu behar zirela.

Espainiari buruzko 2018ko txostenean, bereziki aipatzen da Euskadi nota onarekin, zehazki, gutxieneko errentaren autonomia-erkidego mailako sistemen estaldura- eta egokitzapen-aldeak aipatzen dituenean. Bereziki, txostenak jasotzen du autonomia-erkidego gehienek ezarri zutela gutxieneko errentarentzako gehieneko muga gisa IPREM adierazlearen zenbatekoa (Ondorio anitzeko errentaren adierazle publikoa, 2004tik erabiltzen dena diru-sarreraren erreferentzia gisa gizarte-babeseko programen ondorioetarako). Beste batzuetan, aldiz, gutxieneko errenta gutxieneko soldataren zenbatekora heltzen da eta gutxi batzuetan (Nafarroan eta Euskadin bezalaxe) hori gainditzen da.

Maiatzean, Europako Batzordeak gomendio politikoak egin zizkien estatu kideei, zehazki, herrialde bakoitzeko txostenetan egindako analisisan oinarrituta. Gomendio horiek estatuei iradokitzen zieten egiturazko erreformak egitea enpresa-ingurunea hobetzeko eta inbertsiorako baldintzak hobetzeko, bereziki produktuen eta zerbitzuen merkatuak erreformatuz, berrikuntza babestuz eta enpresa txiki eta ertainen finantzaziorako sarbidea hobetuz. Halaber, estatu kideei gomendatu zitzairen erresilientzia ekonomikoa indartzeko aldaketa demografikoa, migrazioa edo klima-aldaketa bezalako erronken aurrean. Horrez gain, gomendatu zitzairen erreformak egitea eskulana etorkizunerako prestatzeko, etorkizuneko lan-modalitateak eta digitalizazioaren goraldia barne. Horrekin batera, gomendatzen zitzairen diru-sarreraren arteko desberdintasunak murriztea eta enplegua sortzea, batez ere, gazteentzat.

Zehazki, Batzordeak hauxe eskatu zion Espainiari: enpleguak eta gizarte-zerbitzuek enplegu-eskatzailleak babesteko gaitasuna dutela bermatzea, baita enplegatzaileekiko lankidetzara hobe ezarri ere; mugagabeko kontratuetarako trantsizioak sustatzea; familia-babesa hobetzea eta estaldurarik ezari aurre egitea diru-sarrerak bermatzeko eskemetan, hain zuzen ere, eskemen sistema sinplifikatuz eta eskualde mailako sarbide-baldintzen arteko aldeak murriztuz; eskola-uzte goiztiarra eta hezkuntza-emaitzen eskualdeen arteko aldeak murriztea, ikasleak eta irakasleak hobeto lagunduz; ikerketan eta berrikuntzan egiten den inbertsio publikoa areagotzea eta arlo honetan babes-politiken ebaluazioak sistematikoki burutzea horien eraginkortasuna bermatzeko; eta hezkuntzaren eta enpresen arteko lankidetzara indartzea gaitasunen arteko desdoitzeak arintzeko.

Egonkortasun eta Hazkunde Itunari dagokionez, Europako Batzordeak neurriak hartu zituen; besteak beste, Frantziarekin alderatuta gehiegizko defizita egotekotan, prozedura aplikagarria ixtea gomendatzen zen. Behin herrialdea prozeduratik kanpo geratu ostean, 2018an, Batasunaren aurrekontu-arauak betetzea bermatzeko prozeduren menpeko estatu kide bakarra Espainia izan zen, 2011ko hogeita lau herrialdeekin alderatuta. Horregatik, Batzordeak eskatu zion, 2019an, lehen mailako gastu publiko garbiaren gehieneko hazkunde-tasak % 0,6tik ez igotzeko, hau da, BPGren % 0,65eko egiturazko urteko doitzea. Horrez gain, eskatu zion zor publikoaren ratioaren murrizketa azkartzeko salbuespenezko onurak erabiltzeko. Urte zail batzuen ostean, Greziak arrakastaz bukatu zuen egonkortasuna babesteko programa; horrela, eurogunean eta Batasunaren erdigunean duen lekua bermatu zen.

Europako Seihilekoaren zikloa berriz ere hasi zen 2018ko azaroan Hazkundeari buruzko Etorkizuneko Urteko Azterlanaren argitalpenarekin; horrek aurreratu zuen Europako ekonomiak hazten jarraituko zuela 2019an.

Bestalde, maiatzean, Batzordeak proposatu zuen Erreformatik Babesteko Programa bat sortzea (Europako Parlamentua eta estatu kideak hori aztertzen ari dira) estatu kideak babesteko lehentasunezko erreformetan, zehazki, 25.000 milioi euroko

aurrekontu orokor baten bidez eta babes eta aholkularitza finantzazioak eta teknikoak eskainiz.

Abenduko Euroaren Gailurrean, EBko estatuburuek eta gobernu-buruek neurri berriak hartu zituzten Batasun Ekonomiko eta Monetarioan sakontzeko, hain zuzen ere, Ebazpen Funts Bakarrarentzako babes komuneko mekanismo baterako planak babestuz eta Europako Egonkortasuneko Mekanismoaren erreforma babestuz. Gainera, eurogunean eta etorkizunean euroguneako kideak izango diren estatueta konbergentzia eta lehiakortasun ekonomikoak sustatzeko aurrekontu-tresna bat garatzeko eskatu zuten.

Abenduan ere bai, Batzordeak gero eta konplexuagoa eta multipolarragoa den mundu honetan euroaren nazioarteko papera indartzeko eta Europaren pisu ekonomikoa, politikoa eta finantzarioa hobeto erakusteko ideiak aurkeztu zituen.

Migrazioa

Abenduaren 4an, Europako Batzordeak Europako Migrazioko Agentziaren esparruan egindako aurrerapenen 2018ko azken txostena argitaratu zuen. Txostenak aztertzen zuen Europar Batasunak nola jarduten duen migrazioa bere alderdi guztietan kudeatzeko, kanpoko ekintza, mugen kudeaketa edo barneko neurriak barne.

2018an, 150.000 gurutzaketa irregular inguru antzeman ziren Europar Batasuneko kanpoko mugetan. Helduera gehienak Mendebaldeko Bidean (Marokotik Espainiara) erregistratu ziren; halaber, ikusi da desplazamendu bat dagoela Erdiguneko Bidetik (Libiatik Italiara) Mendebaldeko Biderantz. 2018an, guztira, Espainiara 65.000 pertsona heldu ziren, 2017an baino % 131 gehiago. Espainiara heltzen zirenen artean, nazionalitate nagusia marokoarra zen (gurutzaketen bostena) eta, horren ostean, Mendebaldeko Afrikako herrialdeetako beste nazionalitate batzuk zeuden (Guinea, Mali, Costa de Marfil eta Gambia), baita Aljeriakoak ere.

Asilo-eskaerei dagokionez, 2018an, Europar Batasunean eta elkartutako Schengen herrialdeetan, nazioarteko babeseko 634.700 eskaera inguru aurkeztu ziren (2017an baino % 10 gutxiago). 2018an, herrialde hartzaile nagusiak Alemania, Frantzia, Grezia, Italia eta Espainia izan ziren (eskaera guztien % 72). 2017an bezalaxe, jatorrizko herrialde nagusiak Siria, Afganistan eta Irak izan ziren. Horrez gain, egiaztatu zen nabarmen areagotu direla Schengen bisatik salbuetsita dauden herrialdeetako migratzaileen eskaerak, bereziki, Venezuela, Georgia eta Kolonbiakoak.

Mugen kudeaketa indartzeari dagokionez, txostenak gogorarazten du, irailean, Batzordeak proposatu zuela Muga eta Kostaldeetako Europako Guardia bat sortzea, mugetako 10.000 guardiek osatutako etengabeko kidegoarekin, zehazki, estatu kideek uneoro EBren operazio-babes osoa dutela bermatzeko.

Barneko neurriei dagokienez, Asiloko Europako Sistema Komunaren (SECA) erreformak geldirik jarraitzen du EBren Kontseiluan. Europako Batzordearen hasierako zazpi proposamenetatik, bost hauetan aurrera egin da: Aitorpen-araudia, Harrerako baldintzen inguruko Zuzentaraua, Asiloko Europako Agentziaren Araudia, Eurodac Araudia eta Batasunaren Birkokatze-esparruaren inguruko Araudia. Hala eta guztiz ere, konpromiso batera heldu behar da Asilo-prozeduraren Araudiari eta Dublingo Araudiaren Erreformari dagokienez (horrek nazioarteko babes-eskaera baten azterketaren estatu kide erantzulea zein den ezartzen du eta krisi-mekanismo bat zehazten du; horren arabera, herrialde bat asilo-eskaera gehiegi jasotzen ari bada, eskatzaileak EBko beste herrialde batean birkokatuko dira). Batzordeak konpromisoa hartu du presio pean dauden estatu kideak babestea eta elkartasun osoa eskaintzea bermatzen dituen eta, aldi berean, bigarren mailako mugimenduak eta sistemaren abusuak saihesten dituen konpromiso bat bilatzeko lan egingo duela.

Halaber, txostenak azaltzen du legezko bideak eta birkokatzea bermatzeko jarduerak jarraitzen dutela. 2015etik, Europar Batasunean, hirugarren herrialdeetatik 44.000 errefuxiatu birkotatu dira EBren programen bitartez.

Bestalde, Batzordeak ekainean aurkeztu zuen Asilo eta Migrazio Funtzaren (FAMI) proposamena 2021-2027 eperako, estatu kideen esfortzuak funtsezko hiru eremu hauetan babesteko dituen: asiloa, legezko migrazioa eta integrazioa, baita migrazio irregularren aurkako borroka eta itzulera ere.

Era berean, 2018ko abenduko 10ean eta 11n, Marrakexen (Maroko) Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularerako Munduko Ituna onartzeko Gobernu arteko Konferentzia ospatu zen. Ituna 150 herrialdek baino gehiagok babestu zuten, besteak beste, Estatu Batuek, Israelek, Txilek edo Australiak eta EBko bederatzi hauek: Txekia, Eslovakia, Hungaria, Polonia, Austria, Bulgaria, Letonia, Italia eta Kroazia.

Herrialdeen arteko lankidetzaren ezartzeko, migrazioaren onurak baliatzeko eta agiririk gabeko migratzaileak babesteko lehenengo akordio globala da. Itunak 23 helburutan oinarritutako lankidetzaren esparrua ezartzen du.

Enplegua eta gizarte-politika

2018ko azaroan, Gizarte-eskubideen Europako Zutabearen aldarrikapenak urtebete bete zuen, Suediako Göteborg hirian ospatutako bidezko enpleguaren eta hazkundearen aldeko gizarte-gailurrean.

Zutabeak hogeitaz printzipio eta funtsezko eskubide ezartzen ditu, hiru kategoriaren inguruan egituratuta: aukera-berdintasuna eta lan-merkaturako sarbidea (hezkuntza, prestakuntza eta ikaskuntza etengabea; genero-berdintasuna; aukera-berdintasuna; eta enplegurako laguntza aktiboa); lan-baldintza bidezkoak (lan seguru eta egokigarria; soldatak; lan-baldintzei eta kaleratzeetan izan beharreko babesari buruzko informazioa; gizarte-elkarrizketa eta langileen parte-hartzea; laneko bizitzaren eta bizitza pribatuaren arteko oreka; lan-ingurune osasungarria, segurua eta ondo egokitua; eta datuen babesa); eta gizarte-babesa eta inklusioa (haurrentzako laguntza eta sostengua; gizarte-babesa; langabezia-prestazioak; gutxieneko errenta; pentsioak eta zahartzaroko prestazioak; osasuna; desgaitasuna duten pertsonen inklusioa; iraupen luzeko zaintzak; etxebizitza eta etxerik gabeko pertsonentzako laguntza; eta funtsezko zerbitzuen irisgarritasuna).

Horrez gain, Batzordeak zutabea ezartzeko proposamen legegile batzuk aurkeztu zituen; horietako batzuk oraindik ere negoziazio-fasean daude Europako Parlamentuaren eta estatu kideen artean. Horrela, martxoaren 13an, Batzordeak Europako Lan-agintaritzak sortzeko arautegi-proposamen bat aurkeztu zuen, baita langileentzako gizarte-babeserako sarbideari buruzko gomendio-proposamen bat ere. Gainera, ekimen horiekin batera, Gizarte-eskubideen Europako Zutabearen aplikazioaren kontrolari buruzko jakinarazpen bat egin zen; hori hertsiki lotuta egongo da politiken koordinazioko Europako Sei-hilekoarekin.

Arautegi-proposamenari erreparatuz, Batzordeak proposatzen zuen Europako Lan-agintaritzak herritarrei, enpresei eta administrazio nazionaleri laguntzea zirkulazio askeak eskaintzen dituen aukerei ahalik eta etekin handiena ateratzen eta bidezko lan-mugikortasuna bermatzen. Proposatutako agintaritzaren misioak hiru alderdi ditu: herritarrei eta enpresei enpleguari, ikaskuntzari, mugikortasun-araubideei, kontratazioari eta prestakuntzari buruzko informazioa ematea eta Europar Batasuneko beste estatu kide batean bizitzeak, lan egiteak eta operatzeak eragiten dituen eskubideei eta betebeharrei buruzko orientazioa eskaintzea; agintaritzak nazionalen arteko lankidetzak babestea mugaz gaindiko egoeretan, mugikortasuna babestu eta arautzen dituzten EBren arauak modu erraz eta eraginkorrean jarraitzen direla bermatzen lagunduz (adibidez, informazio-trukea hobetuz, agintaritzak nazionalen artean gaitasunak garatzea sustatuz eta laguntza emanez itundutako eta baterako ikuskapenak egite aldera); eta bitartekaritza eskaintzea eta konponbideak erraztea mugaz gaindiko gatazketan, adibidez, zenbait estatu kide inplikatzeko dituzten enpresen berregituraketetan. Arautegi-proposamen hau aztertu dute Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko Kontseiluak. Batzordearen asmoa da EBko

deszentralizatutako agentzia berri gisa sortuko den agintaritza hau 2019an operatibo egotea.

Europako Lan-agintaritzaz gain, Batzordeak hauek aurkeztu zituen: gurasoen eta zaintzaileen familia- eta lan-bizitza uztartzeari buruzko ekimen bat, aurreikus daitezkeen lan-baldintza gardenei buruzko zuzentarau berri bat eta gizarte-segurantzaren koordinazio-arauen erreforma.

Horrekin batera, pakete honetan, Europako Plus Gizarte Funts (FSE+) berriari buruzko proposamena sartzen da, 101.200 milioi euroko aurrekontuarekin. FSE+ funtsaren helburu nagusia da Europa sozialagoa lortzen laguntzea eta Gizarte-eskubideen Europako Zutabea egi bihurtzea. FSE+ funtsaren finantzazioak enplegu-politikentzako orientabideen egikaritzapenean ere lagunduko du, politiken koordinazioko Europako Sei hilekoaren esparruan xedatutakoaren arabera. Batzordeak maiatzean aurkeztutako proposamenak jasotzen duen bezala, FSE+ funtsak hiru eremu hauetan egingo ditu inbertsioak: 1) hezkuntza, prestakuntza eta ikaskuntza iraunkorrak; 2) lan-merkatuen eraginkortasuna eta enplegurako berdintasunezko sarbidea; 3) gizarteratzea, osasuna eta txirotasunaren aurkako borroka.

Lanik egiten ez duten, ikasten ez duten eta prestakuntzarik jasotzen ez duten gazteen indize altua duten estatu kideek, gutxienez, FSE+ funtsen % 10a bideratu beharko dute gazteen enplegua babesteko finantzazio-neurriak finantzatzera. Gainera, gutxienez, FSE+ funtsaren % 25a esleitu beharko zaie gizarteratzea sustatzera eta pertsonarik ahulenak laguntzera zuzendutako neurriei. Halaber, FSE+ funtsak estatu kideek bere lan-merkatuetan eta gizarteetan hirugarren herrialdeetako nazionalak legez integrazteko egiten dituzten esfortzuak babestuko ditu, betiere epe luzerako integrazioa sustatzen duten neurrietan zentratuz. Horrela, epe laburrerako integrazio-neurriak babesten dituen Asilo eta Migrazio Funtsa osatzen da.

Politika komertziala

2018an, Europar Batasunak akordio komertzial bat lortu zuen Mexikorekin; beste bat sinatu zuen Japoniarekin eta aurreko elkarrizketekin jarraitu zuen Mercosurrekin. Era berean, EBk aurrera egin zuen beste negoziazio komertzial batzuetan, bereziki, Txilerekin. Bestalde, akordio komertzialei buruzko elkarrizketak abiarazi zituen Australia eta Zeelanda Berriarekin.

Europar Batasunak bere interesak defendatu zituen joera protekzionisten eta merkataritzari jarritako gero eta oztopo ugariagoen aurrean, defentsa komertzialeko araudi indartsuago eta eraginkorrago bat indarrean jarritz. Horrela, ekainaren 20an, Europako Batzordeak arautegi bat ezarri zuen; horren bidez, Estatu Batuek altzairuaren eta aluminioaren gainean jarritako arantzelei erantzuteko orekatze-neurriak ezartzen ziren. Neurriak 2.800 milioi euroko balioa duten produktuen zerrenda batean zentratu ziren.

Ikerketa eta berrikuntza

Ikerketaren eta berrikuntzaren eremuan, 2018. urtean, nabarmentzekoa da etorkizuneko 9. Ikerketa eta Berrikuntza Esparru-programa (2021-2027) prestatu dela, Europa Horizontea izendatuko dena.

Maiatzaren hasieran, Europako Batzordeak 2021-2027 eperako aurrekontu-proposamen berria ezagutzera eman zuen; guztira, 100.000 milioi euro proposatzen zituen ¹ bederatzigarren Ikerketa eta Berrikuntza Esparru-programarentzat.

Horregatik, Batzordearen proposamenean areagotu egin den EBko aurrekontu-lerro gutxi horietako bat da; hala, azkenean onartzen bada, EB Europako ikerketaren eta teknologiaren eremuko lau inbertsiogile nagusien artean kokatuko litzateke.

Ikerketa eta berrikuntza lehentasun politikoa dira Europar Batasunarentzat; izan ere, balio europar erreala eransten du, herrialde eta diziplina desberdinetako ikerketa-taldeen arteko lankidetzak sustatzen duelako, nahitaezkoa dena aurkikuntza berritzaileak egiteko.

Zentzu horretan, 2018ko ekainaren 7an, Europako Batzordeak Europa Horizontea aurkeztu zuen. Aurreko 2020 Horizontea ekimenaren lorpenetatik abiatuta, I+b programa berriaren asmoa da Europar Batasuna ikerketaren eta berrikuntzaren abangoardian kokatzea munduko eskalan. Europako Batzordeak aurreikusten du I+G jardueretan 100.000 enplegu berri sortzea inbertsio-fasean eta, inbertitutako euro bakoitzeko, BPGren 11 eurora arteko errendimendua lortzea 25 urteko epean.

2020 Horizontearen zutabeen² egitura mantentzen da ikerketa eta berrikuntza esparru-programa berrian, aurreko finantzazio-programekin alderatuta, hobekuntzako faktore erreala dela jotzen baita. Horrez gain, bikaintasun-printzipioa aplikatzen jarraitzen da.

Hurrengo Esparru-programarako nobedadeen artean, hauek aipatu behar dira: Europako Berrikuntza Kontseiluaren (EBK) sorkuntza, misioetan zentratutako ikerketa eta berrikuntza eta elkarketak eta lankidetzak.

¹ Zifra honek 97.6 mila milioi euro jasotzen ditu Europa Horizontearentzat –horrek esan nahi du, 2020 Horizontearen 77 mila milioi euroekin alderatuta, ia-ia % 30eko igoera egon dela- eta 2.4 mila milioi euro Euratom ikerketa nuklearreko programarentzat.

² I. Zutabea. Zientzia irekia, 25.800 milioi euro izango dituena. II. Zutabea. Erroka globalak eta industria-lehiakortasuna, 52.700 milioi euroekin. III. Zutabea. Berrikuntza irekia, 13.500 milioi euroekin.

Europako Batzordearen proposamena 2018an eta 2019an aztertu dute eta aztertuko dute Europako beste erakundeek, hau da, Europako Parlamentuak eta EBko Kontseiluak. Negoziazioak datorren urtean amaitzea espero da.

Merezi du azpimarratzea, 2018an, Europako Berrikuntza Institutuaren (EIT) Fabrikazio Aurreratuko Ezagutzaren eta Berrikuntzaren Erkidegoa sortzeko deialdia abiarazi zela. Fabrikazioko EIT Institutuaren proposamen irabazlea Made by Europe izan da, 17 herrialdeetako 50 bazkidek osatutako partzuergoa, besteak beste, hauek: Volvo, Vienako Unibertsitate Teknikoa, CEA, Siemens, Patraseko Unibertsitatea eta Whirpool Europe. Besteak beste, hauek dira euskal bazkideak: Tecnalía, IK4 Research Alliance, Mondragón, Aernnova eta ITP Aero. Egoitza Parisen daukalarik, Fabrikazioko EIT Institutuak 5 berrikuntza-*hub* (enplegu-zentro) izango ditu Europa osoan; horietako bat Bilbon egongo da. Funtsezko proiektu estrategiko bat da Euskadi europar ezagutza eta ekintzailtzaren aliantza baten burua izan dadin alor horretan.

Energia eta Klima-aldaketa

Energia-politikari dagokionez, 2018an, nabarmentzekoa da Europako Batzordeak 2016ko azaroan aurkeztu zuen “Energia garbia europar guztiontzat” COM (2016)0860 Paketeko onartzeke zeuden proposamen legegileak onartu direla. Bere helburua da Europar Batasunaren lehiakortasuna mantentzea, hain zuzen ere, energia garbi bateranzko trantsizioa energiaren munduko merkatuak aldatzen ari den une honetan.

Paketeak zortzi proposamen legegile hartzen ditu barne, arlo hauei buruzkoak: gobernantza, elektrizitatearen merkatuaren konfigurazio berria (elektrizitateari buruzko Zuzentaraua, elektrizitateari buruzko Arautegia eta arriskuen aurrean prestatzeari buruzko Arautegia), efizientzia energetikoa, eraikinen efizientzia energetikoa, energia berriztagarria eta EELA erregulatzailari (Energiaren Erregulatzailen Lankidetzarako Agentzia) aplikatu beharreko arauak.

Proposamen horien bidez, Batzordeak erakutsi nahi du energia garbirako trantsizioa dela etorkizuneko hazkunde-sektorea; erakutsi nahi du, halaber, EB ondo kokatuta dagoela bere ikerkuntza, garapen eta berrikuntzarako politikak erabiltzeko, trantsizio hori aukera industrial konkretu bihurtzeari begira.

2018an, energetikoki eraginkorrak diren eraikinen inguruko berrikusitako Zuzentaraua onetsi da, zeinaren epe luzerako helburua EBko higiezinaren parkearen deskarbonizazioa den. Horrez gain, energia-eraginkortasunari eta energia berriztagarriei buruzko berrikusitako zuzentarauak onetsi dira; horiek ezartzen dute, hemendik eta 2030era arte, Europar Batasunak energiaren % 32a lortu beharko duela iturri berriztagarrietatik eta % 32,5eko energia-eraginkortasuneko helburu nagusira heldu beharko dela.

Halaber, aurten, Energiaren eta Klimaren aldeko Ekintzaren Batasunaren gobernantza-esparrua ezartzen duen Arautegia onesten da. Ezartzen du estatu kideek betebeharra dutela Energiari eta Klimari buruzko Plan Nazional Integratuak egiteko - 2021-2030 horizonterako eta hurrengo hamarkadetarako-, hain zuzen ere, Energiaren Batasunaren bost dimentsioetako bakoitzarekin lotutako helburu eta ekarpen zehatzekin: deskarbonizazioa, energia-eraginkortasuna, energia-segurtasuna, barne-merkatua eta ikerketa, garapena eta lehiakortasuna. 2018an, estatu kideek plan horien zirriborroak aurkezteko betebeharra dute.

Klima-aldaketaren aurkako borrokari dagokionez, Europako agendan, nabarmentzekoa da 2018ko azaroan aurkeztu egin zela Europako Batzordearen Komunikazio hau: “Planeta garbia guztiontzat: ekonomia oparo, moderno, lehiakor eta klimatikoki neutro baten epe luzerako ikuspegi estrategiko europarra”. Bere xedea da adieraztea klimaren eta energiaren arloan EBren politika zein norabidetan joan behar den eta, horrez gain, esparru izatea Europar Batasunak Parisko Akordioko tenperatura-helburuak lortzeko epe luzerako ekarpenentzat hartzen duen horretan, Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuekin bat eginez.

Estrategiak eztabaida sakona irekitzen du erabakiak hartzeaz arduratzen direnek eta, oro har, Europako herritarrek eztabaida dezaten EB nola prestatu behar den 2050era begira. Horrez gain, aztertu beharko dute, Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru-konbentzioaren aurrean egingo den epe luzerako estrategia europarraren gerorako aurkezpena, beranduenez 2020an.

Komunikazioaren helburua da baieztatzea Europaren konpromisoa klima-ekintza globala zuzentzeko eta, 2050ean, Europar Batasuna “zero emisio garbiko” egoera batera eraman dezakeen ikuspegia aurkeztea, zehazki, sozialki bidezkoa den eta ekonomikoki errentagarria den trantsizio baten bidez. Komunikazioak azpimarratzen ditu eraldaketa honek Europako herritarrei eta bertako ekonomiari eskaintzen dizkien aukerak eta, horrez gain, etorkizunerako erronkak identifikatzen ditu.

Horrez gain, aipagarria da 2018ko abenduan Katowicen (Polonia) ospatu zen COP 24, zeinaren emaitzek nazioarteko erkidegoak itunak eta aliantzak lortzeko duen gaitasuna islatu duten, besteak beste: Arauen Liburuaren zati garrantzitsu bat ezartzeko akordioa -Parisko Akordioa martxan jartzeko esparru tekniko-. Halaber, ezarri da, 2019an zehar, lankidetzeta-mekanismoetan lan egingo dela -emisio-transferentziaren bidez, herrialdeei helburu klimatikoak betetzen laguntzeko sortutako tresna- eta, azkenik, nabarmendu daiteke Parisko Akordioa Betetzeko Batzordea sortu egin dela.

Politika industrialia

Oinarri industrial irmoa funtsezkoa da Europako ekonomiaren etorkizunerako. Horregatik, 2017ko amaieran, Juncker presidentek politika industrialaren estrategia berriztatua aurkeztu zuen, industriaren esfortzuak babesteko, berau munduko liderra izan dadin berrikuntzan, digitalizazioan eta deskarbonizazioan. Estrategia berriztatu horrek bi ikuspegi uztartzen ditu: ikuspegi horizontal bat (merkatu digital bateratua, industriaren digitalizazioa, ekonomia zirkularra, karbono gutxiko ekonomia, Europarentzako kapazitateen agenda, eta abar...) eta ikuspegi sektorial bat (estrategia espaziala, Europako defentsa-funtsa, eta abar).

2018ko hasieran, Europako Batzordeak Industria 2030 Taldearen lehenengo bilera antolatu zuen. Foro honek hogeitun adituk osatutako taldea biltzen du (horien artean, SPRIko pertsona bat dago) eta 2030 epemugan Europako industriarentzako ikuspegiak definitzen lagunduko du. Espero da etorkizuneko politika industrialari buruzko gomendioak ezagutzera ematea 2019ko udan.

2018ko urtarrilean, Europako Batzordeak adituen talde bat eratu zuen, Europarentzako balio-kate estrategikoen inguruan eta balio-kate horietan baterako inbertsioak (EB, estatu kideak eta industria) sustatzeko moduaren inguruan aholkatzeaz ardura zitezen.

Azkenik, nabarmendu behar dira Europako Batzordeak 2018an adimen artifizialaren eremuan proposatu dituen ekimenak; horrela, aitortu egin du teknologia honek duen potentziala Europako industriaren lehiakortasunaren sustapenerako.

Horrela, apirilean, Batzordeak ikuspegi europarra proposatu zuen adimen artifizialean inbertsio publikoa eta pribatua areagotzeko, horrekin lotutako aldaketa sozioekonomikoetarako prestatzeko eta esparru etiko eta juridiko egokia ezartzen dela bermatzeko. Hilabete batzuk beranduago, 2018ko ekainean, Batasuneko gobernuak adimen artifizialaren eremuko maila altuko adituen talde bat izendatu zuen eta Adimen Artifizialari buruzko Europako Aliantza abiarazi zuen. Geroago, abenduan, Batzordeak koordinatutako plan bat proposatu zuen adimen artifizialaren garapena eta erabilera sustatzeko, nazio mailako ekintzen eta EBren ekintzen osagarritasuna bermatzeko eta, horrela, horien eragina areagotzeko.

Merkatu digital bakarra

Europar Batasuna eraldaketa digitalaren abangoardian mantentzen dela bermatzeko, 2018an, Batzordeak "Europa digitala" programa berri bat proposatu zuen, 9.200 milioi euroko aurrekontuarekin 2021-2027 eperako. Programak bost eremu espezifiko babestuko ditu: errendimendu altuko informatika, adimen artifiziala, zibersegurtasuna, eraldaketa digitala eta elkarreragingarritasuna.

Bestalde, «Europa Konektatu» mekanismoaren atal digitalak aurreikusi du 3.000 milioi euro bideratzea EB osoko lurraldeak konektatzeko. Espero da funts horiek eskualdegarapenerako eta kohesio-politikarako funtsak bezalako beste batzuetara gehitzea, zehazki, estrategia digitalean egiten diren inbertsio horiek osatzeko.

2018an, gobernu europarrak ekimen berriak proposatu zituen arlo hauetan: superkonputazioa, osasun elektronikoa, adimen artifiziala, *blockchain* eta lineako plataformen gardentasuna.

Era berean, WiFi4EU ekimenean proposamenak egiteko lehenengo deialdia argitaratu zen; izan ere, horrek, 120 milioi euroko aurrekontuarekin, wifi ekipoen instalazioa sustatu nahi du Europa osoko espazio publikoetan.

Gainera, 2018an, Batzordeak proposatu zuen Lehiakortasun Industrialeko eta Teknologikoko eta Zibersegurtasunaren Ikerketako Europako Zentro bat sortzea, baita Koordinazioko Zentro Nazionalen sare bat ere, EBri zibersegurtasunaren arloan beharrezkoak diren gaitasun teknologikoak eta industrialak mantentzen eta garatzen laguntzeko eta, horrela, bere merkatu digital bakarra babesteko.

Era berean, 2018ko amaieran, Batzordeak 2017an proposatutako zibersegurtasun-arautegiari buruzko akordio batera heldu zen. Arautegi berri honek ahalbidetuko du Europako Zibersegurtasuneko Agentziaren agindua indartzea eta zibersegurtasunaren ziurtapen-esparru bat ezartzea.

Azkenik, indarrean sartu ziren ekimen digital garrantzitsuak. Horrela, 2018ko apiriletik, eramangarritasun-arau berriei esker, Europako herritarrek EBko edozein lekutan eskura ditzakete bere etxeetan harpidetuta dauden eduki musikalak eta ikus-entzunezkoak. Bestalde, 2018ko abenduan, indarrean sartu ziren merkatu bakarrean lineako salmenten justifikatu gabeko blokeo geografikoa debekatzen duten arauak.

Goi-mailako Hezkuntza, Lanbide-heziketa

Aurretik aipatu den bezala, 2018. urtean, eremu honetan, nabarmentzekoa izan da abian jarri direla zenbait neurri Göteborgko Gailurrean ezarritako akordioak egikaritzeko. Halaber, Erasmus + 2021- 2027 Programaren etorkizuneko aurrekontuaren eta lehentasunen akordioak eragin berezia izan zuen, baita hezkuntzaren eta etorkizuneko gaitasunen Europako agenda berriak eta Brexitaren aurrean ikasleen eta profesionalen mugikortasuna bermatzeko ezarritako kontingentzia-planak ere.

Horizontea etorkizuneko enpleguei erantzutean eta Europar Batasunaren eta nazioarteko testuinguruaren etorkizuneko erronketara egokitzean kokatuta dagoelarik, 2018an, eremu horretako aurrekontu-partida areagotu zen. Aurretik aipatu den bezala, eraldaketa digitalerako finantzazio europarra bederatzi aldiz biderkatu egin da; Erasmus + 2021- 2027 Programara eta Europako Elkartasun Kidegora bideratutako aurrekontua ere bikoiztu egin da eta mugikortasun europarrerako eta gazteriarako partida indartu da. Horrez gain, aitortzen da hezkuntzaren potentziala eraikuntza europarra eta Europar Batasunaren sentimendua eta balioak indartzeko.

Bereziki aipatu behar dira Europako Batzordeak lanbide-heziketaren zein goi-mailako hezkuntzaren bikaintasuna indartzeko sustatutako bi ekintzak, hain zuzen ere, eskualde-mailako ekosistemak Espezializazio Adimenduneko Estrategiarekin lerrokatzeko. “Bikaintasunerako LH Zentroak” eta “Europako unibertsitateen sareak” izendapenaren pean, agintaritza publikoen, enpresa-sektorearen, hezkuntzaren eta berrikuntzaren arteko lankidetzarako esparru berriak bultzatzen dira, erronka zehatzei erantzuteko espezializazioko esparru kurrikular komunak indartze aldera. Agendan, mugikortasuna, nazioartekotzea eta hezkuntza-bikaintasuna lehentasunak dira; 2018an, goi-mailako hezkuntzaren potentziala eta unibertsitateen rola areagotu ziren, baita lanbide-heziketa eta prestakuntza-zentroak ere, enpresako LH duala barne.

Bestalde, unibertsitatea-enpresa aliantza finkatu egin da horren inguruko Europako Estrategia ezarri delako, arreta berezia jarriz eskualde mailako dimentsioan.

Diplomazia Kulturala, Kultura eta Industria Kultural eta Sortzaileak (IKS)

2018. urtea “Ondare Kulturalaren Urte Europarra” izendatu zen; kultura eta ondarea inoiz baino gehiago nabarmentzen dira Europako agendan, Batasun osoan horiek sustatzeko ekimenak sustatuz eta ondare kulturalaren aldeko eskualde mailako artikulazio-xedapen desberdinak adostuz (kalitate-zigiluak...).

Industria kultural eta sortzaileak eskualde mailako garapena, berrikuntza eta lehiakortasuna eskaintzen dituen sektore gisa finkatzen dira eta etorkizuneko Creative Europe 2021-2027 Programaren aurrekontua bikoiztea erabakitzen da. Aurrekoa ez da lankidetzak kulturalaren eta industria kultural eta sortzaileen eremuan ekintzak finantzatzen dituen programa bakarra; horrez gain, Horizon Europe Programak eta, besteak beste, Interreg Europe bezalako eskualde mailako lankidetzak-esparruek horrelako ekintzak finantzatzen dituzte. Inoiz baino gehiago, lehentasunezkoa da Industria Kultural eta Sortzaileen (IKS), berrikuntzaren eta sormenaren arteko lotura eta horiek lerrokatzea Europar Batasuneko eskualdeen espezializazio adimenduneko estrategiekin, baita espezializazio adimenduneko *ad hoc* plataformarekin ere.

Europako Batzordeak Hiri Kultural eta Sortzaileen eguneratutako monitore bat argitaratu zuen, Europako eskualde eta hiri gehiago parte hartzera gonbidatuz.

Horrela, Europako ohitura kulturalen adierazleak birformulatzeko oinarrizko beste tresna bat da.

Gainera, eleaniztasunaren potentzialak badauka bere ibilbidea agenda europarrean, baita hizkuntzaren industriari eta hezkuntza eleanitzari dagokienez ere.

Ikus-entzunezko sektorea Europar Batasunaren kanpo-sustapenerako txartelaren parte da. Hala ere, beharrezkoa da Berrikuntzaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrien testuinguruarekin bat datorren agenda bat sustatzea eta akordio batera heldzea Europako *ad hoc* Zuzentarauari dagokionez. Digitalizazioa eta ondarrerako sarbidea Europar Batasunak 2018-2020 epean indartu nahi dituen ekimenak dira.

2018an, Diplomazia Kulturalaren Europako Estrategiaren ekintza-plana egikaritu zen eta Batzordea-EUNIC eta Diplomazia Kulturalaren Plataforma Akordioa sinatu zen, ekintza-plana egikaritze aldera. Kulturaren potentzialak bere lekua dauka Europar Batasunaren kanpo-ekintzan, kulturaren nazioartekotzea eta diplomazia kulturala bereiziz. 2018-2019 epean, estrategiak kontsulta publiko bat eta deialdi bat abiaraziko ditu EUNICeko kideen parte-hartzearekin egikaritutako diplomazia kulturaleko proiektuak finantzatzeko aldera.

Garapenerako lankidetzak eta Agenda Globala

2018an, Europar Batasunak 2030 Agendak eta Garapen Jasangarrirako Helburuek ezartzen duten egutegiari erantzun behar zion eta estrategia europar bat bultzatu EBk Nazio Batuek modulatzeko duten garapen iraunkorraren eremuko nazioarteko eztabaidetan duen pisua areagotzeko. Europako agendaren bereizgarriak izan dira tokiko eta eskualdeko agintaritzen rola eta lankidetzak publiko eta pribatuei buruzko eztabaida, baita aliantza estrategikoak ere.

Garapenerako lankidetzarako Europako plataformek 2019-2021 epean aplikatzeko lankidetzak-hitzarmen estrategiko berriak sinatu dituzte. Europako agendarekin bat eginez, lankidetzak-hitzarmen horietan, Garapen Jasangarrirako Helburuen aldeko irismen-ekintzak eta lankidetzak deszentralizaturako aliantza estrategiko berriak modulatu dira.

Europako Elkartasun Kidegoari dagokionez, 2018an, eraikuntza-zikloa ixten da eta esleitutako aurrekontua aurkezten da.

III. EUSKAL INSTITUZIOEK 2018. URTEAN EUOPAR BATASUNAREN AURREAN GAUZATUTAKO JARDUERAK

III.1. Eskualdeetako Lantaldea eta Euskadiren parte-hartzea

Eskualdeetako Lantaldea (aurrerantzean EL) EBko eskualde eta udalerririk ordezkatzen dituen batzar politikoa da. Maastrichteko Tratatuen bidez 1992an eratua, 1994ko martxoan hasi zen funtzionatzen, eta harrezkero gero eta aholkularitza-ahalmen eta eragin handiagoa izan du, bai EBko legedian eta bai europar agenda politikoaren jardunean.

Eskualdeetako Lantaldeak 350 kide titular ditu (eta 350 ordezko): EBko 28 Estatuetakoko eskualdeetako presidentek, alkateak, zinegotziak, diputatuak, eta abar. Haien eginkizuna da ordezkatzen dituzten herritarren interesak Bruselan defendatzea, erabateko independentziaz eta betiere Batasunaren interes orokorra bilatuz. Euskadiren kasuan, Lehendakariak jarraitzen du kide titularra izaten, eta haren ordezkoa Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia.

Europar araudia lantzeko prozesuaren baitan, EBko instituzioek ELan iritzia eskatu behar dute nahitaez jarduera-eremu konkretu batzuetan, zeren eragina baitute euren eskualdeko eta tokiko eskumenetan. Nahitaezko kontsulta-eremuak honako hauek dira: garraioak, enplegua, gizarte-politika, Europako Gizarte Funtsa, hezkuntza, lanbide-heziketa, gazteria eta kirola, kultura, osasun publikoa, Europa barneko sareak, kohesio ekonomikoa, soziala eta lurraldekoa, eta ingurumena eta energia; era horretan, EBren jarduera-eremu gehienak daude sartuta nahitaezko kontsulta-eremuen multzoan. Nahitaezko kontsultez gain, Kontseiluak, Batzordeak eta Europako Parlamentuak ere EL kontsulta dezakete, nahi izanez gero; halaber, ELak berak bere iritzia eman dezake nahi izanez gero, berak hala erabakita.

Iritzi horiek europar araudiari buruzko irizpenen bitartez adierazten dira; irizpen horiek Batzorde, Kontseilu eta Europako Parlamentura bidaltzen dira gero.

Irizpenez gain, ELak txostenak egin eta erabakiak hartzen ditu, EBko legediak euren udalerririk eta eskualdeetan duen inpaktua jasotzeko, gaiak EBren agendan sartzeko, eta planteatzen diren arazo politikoei buruz duen iritzia plazaratzeko. 2018an, ELak **83 irizpen eta erabaki** onartu ditu, guztira.

ELak parlamentu baten moduan funtzionatzen du, aholkularitza-rol hutsa izan arren. Urtean bost edo sei osoko bilkura egiten dira Bruselan. Bertan, Lantaldeko kideez gain, pertsona ospetsuek eta gonbidatutako hizlariak parte hartzen dute –batez ere Komisarioek eta EBko presidentzia une horretan duen herrialdeko goi ordezkariak-, gaurkotatzen duten gaiez eztabaidatzeko xedez.

Lantaldeak partaide hauek ditu: Presidente bat, Lehenengo Presidenteorde bat, 28

Presidenteorde gehiago (bat EBko estatu bakoitzeko), bost talde politiko, 63 kidez osatutako Mahaia, sei batzorde iraunkor (eta beste hainbeste "ad hoc", beharren arabera), ordezkari nazionalak, lantaldeak eta eskualdeen arteko lobby taldeak. Gaur egun, Karl-Heinz Lambertz da Eskualdeetako Lantaldearen presidentea.

2018an Euskadik Eskualdeetako Lantaldean izandako parte-hartzea

Eskualde eta toki mailako ordezkari-organoko gisa Eskualdeetako Lantaldeak EBko erabakiak hartzeko prozesuan duen eginkizunaren eraginez, Europako araudiari buruzko zuzenketak aurkeztea da parte hartzeko bide nagusia, baita euskal posizioa EBko erakundeei organo horretan helarazteko ere. Horri deitzen zaio Eskualdeetako Lantaldeen kontsulta-jardura Europako erabakitze-prozesuan.

Gainera, joan den urtean, Eusko Jaurlaritzak beste jardura paralelo batzuetan parte hartu zuen eta, txosten honetan, jarduerarik garrantzitsuenetarikoz batzuk jasotzen dira.

1. Eranskinean, 2018an Euskadik Eskualdeetako Lantaldearen Osoko Bilkuretan izandako Parte-hartzea laburbiltzen duen koadroa kontsulta daiteke; zehazki, egindako sei osoko bilkuretatik, bostetan egon da.

1. Europar Batasuneko araudiari buruzko zuzenketak aurkezteari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak **88** zuzenketa prestatu ditu, **80** aurkeztu ditu organo horren aurrean eta horietako **70** onartzea lortu du.

2. Eranskinean, zuzenketa horiei buruzko informazio zehatza kontsulta daiteke.

Bigarrenik eta, kontuan hartuta zuzenketa bat aurkezteko beharrezkoa dela Eskualdeetako Lantaldeko beste bost kideren sinadura lortzea, 2018an zehar, eskualde desberdinek Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari bidali zizkieten guztira, **649 zuzenketa**, Eusko Jaurlaritzaren babesa bilatzeko eta zuzenketa horiek batera aurkeztu ahal izateko. Guztiak behar bezala aztertu ostean, gobernuak **414 babestu** zituen, hau da, jasotako zuzenketen % 64 inguru.

3. Eranskinean, beste eskualde batzuek egindako eta Euskadirekin batera aurkeztutako zuzenketak kontsulta daitezke.

Azkenik, nabarmendu behar da, Eskualdeetako Lantaldeko jardura oro aurrera eramateko, kideak aldizka biltzen direla, osoko bilkuren aurretik, bai talde politiko europarretan, bai estatu mailako delegazioetan.

2. Zuzenketez gain, 2018an zehar, Eskualdeetako Lantaldearekin lotutako nabarmendu beharreko beste egintza batzuk gertatu dira:

2.1. 2018ko ekainaren 12an, Lehendakariak, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin batera, bilera bat eduki zuen Eskualdeetako Lantaldearen presidentea den Karl-Heinz Lambertzekin Ajuria Enea Jauregian (Vitoria-Gasteiz). Bilera hori eduki zuten Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluaren Berdintasunari, Aniztasunari eta Inklusioari buruzko Konferentzia zela-eta Euskadira egindako erakunde mailako bisitan zehar.

2.2. Urriaren 9an, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Europako Eskualdeetako Lantaldearen osoko bilkuran aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak migrazioaren erronka berriei erantzuteko egindako "SHARE proposamena", Eskualdeetako Lantaldeko kide diren beste eskualde eta udal batzuen borondateak biltzeko Europar Batasunean eta migrazioaren erronkaren aurrean erantzunkidetasun-printzipioa zeharka aplikatzeko mekanismo baten inguruan.

2.3. Euskadik hamalagarren urtez jarraian parte hartu zuen "Open Days" edo 2018ko Eskualdeen eta Hirien Europako Astea, urriaren 8tik 11ra ospatu zena Bruselan. Hauxe da Europako Eskualdeetako Lantaldeak eta Europako Batzordeak antolatzen duten jardunbide egokien inguruan eztabaidatzeko eta horiek partekatzeko urteko hitzordua. Tailerretan, aktiboki parte hartu zuten, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak.

Urriaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiak EBko Euskadiren Delegazioan aurkeztu zuen Etorkizuna Eraikiz ekimena, zehazki, nazioarteko adituek eta Batasuneko erakundeen ordezkariak parte hartu zuten jardunaldi batean. Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatuak Etorkizuna Eraikiz eta Think Tank ekimenen aurrerapen-maila aurkeztu zuen, gobernantza irekiaren eta lankidetzako gobernantzaren eredu delarik. Ekimenari esker, Europako erakundeen eta sareen ekarpen berriak jaso ahal izan ziren, ordurako irekita zegoen lankidetzan sakonduz, hain zuzen ere, ezagutza, talentua eta babes ekonomikoa erakartzeko Gipuzkoako apustu estrategikoentzat eta erreferentziazko zentroentzat.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Zuzendaritza da INTERREG Europe CREADIS3 proiektu europarraren koordinatzailea, eta kulturaren alde egiten duten apustuagatik nabarmentzekoak diren hiriei eta lurraldeei aplikatutako adierazleen eta sormenaren inguruko foro batean esku hartu zuen. Bestalde, Ondarearen Urte Europarraren jardueren esparruan, EBko Euskadiren Delegazioak esku hartu zuen eta Europako 6 eskualderen lurralde-gobernantzari, ondare kulturalari eta ondare industrialari buruzko jardunbide egokiak aurkeztu zituen, Euskadirenak barne.

Hezkuntzaren eta espezializazioaren eremuan, Eskualdeen Aste Europarraren esparruan, Eusko Jaurlaritzak zuzentzen duen EARLALL sarearen Batzar Nagusia

ospatu zen eta Europako Batzordeak “Eskola Futura” ekimena nabarmendu zuen hezkuntza eleanitzaren eremuko jardunbide egoki gisa. Proiektu hori Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Lurralde Lankidetzako Europako Taldeak garatu du.

3. Amaitzeko, Euskadik **Eskualdeetako Lantaldeko zenbait taldeartekoen** jardueren segimendua egiten du, besteak beste, gai hauei dagokienez:

- REGLEG-CALRE taldeartekoa (Eskumen Legegileak dituzten Eskualdeak eta Eskumen Legegileak dituzten Parlamentuak);
- Automobilgintzako taldeartekoa;
- Osasuneko taldeartekoa.

III.2. Europar Batasunaren Kontseiluan eta Europako Batzordearen Komiteetan izandako parte-hartzea

1. Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien parte-hartzea Europar Batasuneko Kontseiluan

2018ko lehenengo seihilekoan, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde-plangintza eta Etxebizitza Sailak Europar Batasuneko Ingurumen Kontseiluko ordezkari gisa autonomikoa izan zuen. Iñaki Arriola sailburuak euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin zuen eta autonomia-erkidegoek ekonomia zirkularraren inguruan duten iritzi komuna defendatu zuen, zehazki, Luxenburgon ekainaren 25ean ospatutako Ingurumen Kontseiluaren saioan. 2019ko martxoaren 5ean, Bruselan, kontseiluaren talde honen beste saio bat egin zen, baina, horretan, sailburuak ez zuen hitz egiteko aukerarik eduki.

Era berean, Kontseiluaren talde honetara atxikitako ingurumeneko lantaldearen bilera guztietan egon gara, non gai ugari jorratzen diren: airearen kalitatea eta, zehazki, adibidez, nazio mailako emisioen murrizketa, hondakinak, plastikozko poltsen kontsumoaren murrizketa barne, berotegi-efektuko gasen emisioak nazioarteko mailan zein Europar Batasunean, biodibertsitatea, ura eta produktu kimikoak.

2018an zehar, parte hartzen jarraitu egin da Europar Batasuneko Gai Ekonomiko eta Finantzarioko Kontseiluaren (ECOFIN) lantaldeetan. Foro hauetan, parte-hartzea Zerga-koordinazioko Organoak zuzentzen du, Eusko Jaurlaritza eta hiru foru aldundiak biltzen dituen.

Aurreko urteetako txostenetan adierazi zen bezala, Euskadiren parte-hartzea lantaldeetara mugatzen da; hau da, kontseiluaren talde honen osoko bilkura ez dago euskal parte-hartzera irekita.

2011tik, Euskaditik ECOFIN Kontseiluaren bi lantaldeen bileretara joaten da.

1. D4 Taldea - Gai fiskalak, bi taldetan banatzen dena:

-zeharkako zergak: honen inguruko gaiak jorratzen dira: BEZa, zerga bereziak, fiskalitate digitala, finantza-transakzioen zerga, etab.

-Zuzeneko zergak: honen inguruko gaiak jorratzen dira: sozietateen zergaren oinarria, administrazio-lankidetzak, «Fiscalis» programa, etab.

2. D5 Taldea - Jokabide Kodea (Enpresen Fiskalitatea), aldi berean zenbait azpitaldetan banatzen dena:

- A Azpitaldea, - B Azpitaldea, - «Sarrerako eta irteerako mozkinen transferentziekin eta zerga-sistemen arteko bateraezintasunekin lotutako abusuzko praktiken aurka

borrokatzeko gaiak» Azpitaldea, - «Hirugarren herrialdeak» Azpitaldea eta - «Kodearen hirugarren eta laugarren irizpideak» Azpitaldea.

Azpitaldeek geroago Jokabide Kodearen Taldearen bileretan ezartzen diren kontu espezifikoak jorratzen dituzte.

4. Eranskinean, euskal erakundeek 2018an zehar parte hartu duten ECOFIN Kontseiluaren Lantaldeen 46 bileren datak kontsulta daiteke.

2. Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea Europako Batzordearen komiteetan

Autonomia-erkidegoek Europako Batzordearen komiteetan parte hartzeko akordioen arabera, gaur egun, 2018-2021 parte-hartze epean gaude. Epe horretarako, Euskadik guztira, 25 komiterako ordezkariak dauka esleitura.

Zehazki, 2018an zehar, Euskadik autonomia-ordezkaritza eduki du jarraian agertzen diren komiteetan (guztira, 13). Bertan, ospatutako bileren kopurua adierazten da, zeinetara autonomia-erkidegoan izendatutako pertsonak joan diren aipatutako komiteetako autonomia-ordezkari gisa:

- "Europa Creativa" Programako komitea: 2 bilera
- Nekazaritza-ikerketarako Komite Iraunkorra (CPIA): Bilera 1
- Igogailuen komitea. Komite horretan, 2020ra arte, Euskadik ez dauka ordezkariarik; hala ere, Andaluziak bere lekua laga dio ezin delako bileretara joan: Bilera 1
- Ingurumeneko eta Klima-ekintzako LIFE Komitea: ez da bildu
- Emisio industrialei buruzko Zuzentarauaren Komitea – 75. artikulua: 2 bilera
- Uren politikaren eremuan jarduteko Batasuneko esparru bat ezartzen duen Zuzentaru aplikatzeko komitea: Bilera bat; azkenean, bertan behera geratu zen.
- Klima-aldaketaren Komitea: 2 bilera
- Kontsumitzaileen babesaren arloko lankidetzarako Komitea (CE) 2006/2004 Arautegia: 2 bilera (batean egon ginen; bestera ezin izan ginen joan agenda-arazoengatik)
- 92 C38800 zenbakidun Komitea, Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemari (EMAS) buruzko Komitea: 2 bilera
- Landa-garapeneko Komitea (aurreko Nekazaritza egituren eta landa-garapeneko STAR Komitea hartzen du barne): 4 bilera
- Ikerketarako Azpiegituren Europako Partzuergoari (ERIC) aplikatu beharreko Batasunaren esparru juridikoari buruzko arautegia aplikatzeko Komitea: Bilera 1
- Osasun Produktuen Komitea (C49800) (aurreko hau ordeztu du: 109.C00300 Estatu kideen osasun produktuekin lotutako legeriak hurbiltzeko Komitea): ez da bilerarik egin
- Barne-merkatuen Informazio-sistemaren Komitea: 3 bilera

III.3. Gobernu-ekintzaren ondorioz EBren aurrean gauzatutako jarduerak

Jarraian, euskal jarduerak 2018an zehar Europar Batasuneko erakundeen aurrean lortutako mugarri nagusiak zehazten dira, jarduketa-mota ohikoenen arabera eta Euskadiren eskumenekin zein Batasunaren esku-hartze arloekin bat datozen gai desberdinei dagokienez.

1. Bisita instituzionalak

Atal honetan, kronologikoki zehazten dira Batasunaren hiriburura (eta beste leku batzuetara) egindako bisita instituzional nabarmenenak, baita Europako erakundeen, eskualdeen eta herrialdeen ordezkariak Euskadira egindako bisita garrantzitsuenak ere.

- Urtarrilak 15: Euskadiren EBko delegatuaren esku-hartzea Europako Batzordearen Policy Forum ekitaldian, euskal lankidetzaren ekimenak eta lan-esparrua aurkeztuz, baita Eusko Jaurlaritzak CRPMren eta PLATFORMAren parte-hartzearekin deszentralizatutako lankidetzaren inguruan koordinatutako azterlanaren ondorio nagusiak ere.
- Urtarrilak 16: Ekintzailetzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen zuzendariaren eta Zibersegurtasuneko Euskal Zentroaren zuzendariaren parte-hartzea European Cyber Security Organisation (ECSO) Erakundeak antolatutako inbertsiogileen lehenengo tailerrean.
- Urtarrilak 25: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak Energiako Espezializazio Adimenduneko Plataformaren Maila Altuko Ekitaldian hartu zuen parte, Euskadiren Espezializazio Adimenduneko Energibasque Estrategia aurkeztuz eta eskualde arteko lankidetzeta nabarmenduz.
- Otsailak 21 eta 22: Euskadi-Flandria Asmoen Adierazpenaren barruan, Kultura Zuzendaritzaren lan-misio bat egin zen, industria kultural eta sortzaileen eremuko ekintza eta ekimen desberdinak alderatze aldera. Lan-agenda bat mantendu zen Flanders District of Creativity-ko arduradunekin. Abuztuan, antzeko beste bilera bat ospatu zen.
- Martxoak 21: Europako Parlamentuaren taldeartekoaren esku-hartzea, Eusko Jaurlaritzak industria kultural eta sortzaileen eremuan sustatutako ekintzak aurkezteko.
- Maiatzak 9: lehendakariak Lagun Onari saria eman zion Eurobasque Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluari, Euskadiren alde egindako lanagatik, Euskadiren izena Europan 70 urtez proiektatuz.

- Maiatzak 9: Euskadin, kulturaren eremuko adierazleei buruzko lan-saio bat egin zen, Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren ildotik. Horretan, besteak beste, Europako Batzordearen ordezkariak, UNESCOko ordezkariak eta Europako zenbait adituk hartu zuten parte.
- Maiatzak 16: Euskadiko Artxiboaren zuzendariaren esku-hartzea eskualde-mailako ekosistemaren eta ondarearen eremuko konferentzia europar batean. Saio hau Europako Batzordearen jardueren egutegian sartu zen Ondarearen Urte Europarraren esparruan; jarduera hau Euskadik koordinatzen duen RICC sareak koordinatu du.
- Ekainak 7: energia jasangarriaren astearen esparruan, Euskadiko Energia Klusterraren zuzendari nagusiak Euskadik eta Eskoziak zuzendutako "Itsas-energia berriztagarriak" izeneko lankidetzaz-hitzarmenaren orain arteko balantzea aurkeztu zuen.
- Uztailak 11 eta 12: lehendakaria Galesera joan zen bisita ekonomiko eta instituzional batean. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarekin batera, Galeseko Lehen Ministroa den Carwyn Jonesekin bildu zen; hain zuzen ere, ulermen-memorandum bat sinatu zuen berarekin eta CAF enpresaren Newport-eko instalazio berriak bisitatu zituen.
- Irailak 5 eta 6: Energiaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza Nagusia Europako Batzordearekin (DG RTD, DG ENER, DG MARE) eta Europako beste eragile eta bazkide batzuekin bildu zen trantsizio energetikoari buruzko proiektuak aurkezteko eta jardunbide egokiak partekatzeko.
- Irailak 20: Eusko Jaurlaritzaren LHko Sailburuordetzaren eta TKNIKAren ordezkari bat gonbidatu zuen Europako Batzordearen berrikuntza-zerbitzuak/JRCk Europako erakundeekin LHren etorkizunari eta bikaintasunari buruzko kontraste-saio batean esku hartzera.
- Irailak 27: Eleaniztasunaren Europako Egunaren esparruan egindako batzordearen konferentzian, euskal hezkuntza-politika eta euskarak komunikazio-tresnetan duen ikusgarritasuna azaldu ziren.
- Urriak 3: Eusko Jaurlaritzaren LHko Sailburuordetzak gidatutako euskal delegazio batek lan-agenda bat mantendu zuen Europako Batzordeko zerbitzu desberdinekin LHko Euskal Lege berria aurkezteko helburuarekin. Nabarmendu behar da batzordeko Enplegu eta Konpetentzien zuzendariarekin izandako bilera. Horrez gain, batzordeak sailburuordetzarekin egiaztatu nahi zituen EB garatzen ari zen LHren bikaintasunerako Europako sarearen ekimenari buruzko zenbait alderdi.

- Azaroak 14: Diseinuaren Euskal Elkartearen (EIDE) ordezkariaren esku-hartzea Diseinuaren Europako Egunen jardunaldian, ERRIN sareak eta Europako erakundeek koordinatutakoak.
- Azaroak 21: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Euskadiren izenean parte hartu zuen Vanguard Initiative Sarearen Batzar Nagusian. Egun horretan bertan, Vanguard Initiative Sarearen bilera politikoaz gain, topaketa bat izan zuen Merkataritza, Inbertsio eta Berrikuntzako Eskoziako Ivan McKee ministroarekin.
- Azaroak 22 eta 23: Kulturako sailburuordeak Venezian ospatutako Europako Batzordearen Ondare Kulturalaren Europako Foroan esku hartu zuen. Foroaren helburua izan zen erreferentziazko esparru baten printzipioak sustatzea ondarearen eremuko Europako proiektuen eskualde-dimentsioari eta kudeaketa eraginkorrari dagokienez. Sailburuordearen esku-hartzeaz gain, besteak beste, Unescoren, Europako erakundeen eta nazioarteko sareen ordezkariak hartu zuten parte.
- Azaroak 26: Europako Batzordeko Barne-merkatu, Industria, Ekintzailtza eta ETEen Zuzendaritza Nagusiko Berrikuntza eta Fabrikazio Aurreratuko zuzendaria den Slawomir Tokarskik hitzaldi bat eman zuen Bilbon Basque Industry 4.0 kongresuaren esparruan.
- Azaroak 27 eta 28: Honako hauek hartu zuten parte Bilbon ospatutako espezializazio adimenduneko plataformen (modernizazio industrialak, energia eta nekazaritza eta elikadura) baterako lehenengo bileran: Rudolf Niessler, Europako Batzordeko Eskualde eta Hiriko Politikarako Zuzendaritza Nagusiko zuzendaria; Slawomir Tokarski Europako Batzordeko Barne-merkatu, Industria, Ekintzailtza eta ETEen Zuzendaritza Nagusiko Berrikuntza eta Fabrikazio Aurreratuko zuzendaria; Mario Milouchev, Europako Batzordeko Nekazaritza eta Landa-garapeneko Zuzendaritza Nagusiko zuzendaria eta Tudor Constantinescu, Europar Batasuneko Energiako Zuzendaritza Nagusiaren aholkulari nagusia.

2. Euskadiko hainbat alderdi European proiektatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoak EBko oraingo gaien inguruan kokatzea

2018ko maiatzaren 2an, Europako Batzordeak 2021-2027 eperako Urte anitzeko Finantza-esparruaren proposamena aurkeztu zuen. Batzordeak 1135 000 milioiko epe luzerako aurrekontua proposatu zuen konpromiso-kreditutan (2018ko prezioetan) 2021 eta 2027 bitarteko eperako; zenbateko hori EU-27aren errenta nazional gordinaren % 1,11 da.

Kohesio Politikari erreparatuz, Europako Batzordeak 2018ko maiatzaren 29an argitaratu zituen egiturazko eta inbertsioko funtsen arautegi-proposamenak 2021-2027 aldirako. Proposamen horiek Europako Parlamentuak eta EBko Kontseiluak aztertu dituzte. Oraindik behin betiko testuak adostu behar dira eta Urte anitzeko Finantza-esparruaren inguruko akordioa behar da, EBko funts eta programa guztien finantza-esleipena erabakiko duelako.

Era berean, EIE Funtsen 2014-2020 programazio-epean, eskualde mailako espezializazio adimenduneko estrategia baten existentzia aurretiazko betekizun bat izan da Helburu Tematikoaren xede espezifikoko eraginkortasunez lortzeko (ikerketa indartzea, garapen teknologikoa eta berrikuntza).

Euskadik urteak daramatza bere espezializazio adimenduneko estrategia edo RIS3 Estrategia zehazteko eta ezartzeko lan egiten; horrek, beste elementu batzuen artean, produkzio-espezializazioko arloak zehazten ditu, industria-sarean eta Euskadiren gaitasun teknologikoetan oinarrituta.

Bestalde, munduko ekonomiaren eta berrikuntza-sare globalen garrantzia dela-eta, administrazio-mugetatik harago doan eskualde mailako berrikuntza-politika bat behar da. Horregatik, funtsezkoa da espezializazio adimenduneko estrategien kanpoko dimentsioa. Herrialdeek eta eskualdeek Europa mailako lankidetzara behar dute bere abantaila osagarriak konbinatzeko, ikerketa eta berrikuntzaren eremuko gaitasunen potentziala baliatzeko, beharrezko ikerketa-gaitasunak lortzeko, berrikuntzaren zatiketa gainditzeko, masa kritikoaren gabeziari aurre egiteko eta balio-kate globaletarako sarbidea bermatzeko.

2014an, “Europako berpizkunde industrialaren alde” Komunikazioan³, batzordeak espezializazio adimenduneko plataformak sortzea proposatu zuen, EBko industriaren lehiakortasuna areagotze aldera berrikuntzaren eta aurrerapen teknologikoaren bitartez eta RIS3 estrategiak konektatuz, azkenik, balio-kate berrien sorkuntza babesteko.

³ COM(2014) 14 final

Ordutik hona, Batzordeak espezializazio adimenduneko hiru plataforma sortu ditu (energia, modernizazio industrialia eta nekazaritza eta elikadurakoa); horietan, gaur egun, berrikuntzako eskualde arteko 30 lankidetzaz hitzarmen daude, non Europako 100 eskualdek baino gehiagok hartzen duten parte.

Bestalde, 2021-2027 eperako Xedapen Komunen Arautegiaren proposamenak hauxe jasotzen du⁴ IV. Eranskinean hurrengo programazio-eperako aldeko baldintza tematikoen artean: Espezializazio adimenduneko nazio edo eskualde mailako estrategiaren gobernantza ona, Nazioarteko lankidetzarako neurriak barne hartzen dituen.

Europako eskualdeak babesteko helburuarekin, RIS3 Plataforman egin duten bezala batera lan egiten jarrai dezaten, Batzordeak proposatu du osagai berri bat sartzea Europako Lurralde-lankidetzan⁵ hurrengo programazio-eperako, 970 milioi euroko aurrekontuarekin eta honetara bideratuta: eskualde arteko inbertsioak berrikuntzan, balio-kate europarren garapena bultzatzen berrikuntzaren eremuko eskualde arteko proiektuak merkaturatuz eta handituz («5. osagaia»).

Kohesio-politikaren eremuan, Eusko Jaurlaritzaren eskari nagusietako bat izan da ⁶beti Europako Lurralde-lankidetzako Programak defendatzea, balio erantsi europar handiagoa eta ikusgarriagoa dutelako. Hortaz, Interreg indartsuagoa nahi genuen, aurrekontu handiagoarekin osagai guztietan, bai tradizioaletan, bai berrietan. Uste dugu berrikuntzarako inbertsioetako lankidetzarekin lotutako “5. osagai” berri honek ere balio erantsi europar altuko emaitzak eduki ditzakela nahiko aurrekontu apalarekin (are gehiago, kontuan hartuta horren % 50 garapen-maila txikieneko eskualdeen sustapenera bideratuko dela).

Beraz, arreta handiz jarraitzen ditugu negoziazioak, ahal duguna eginez batzordeak osagai honentzat proposatzen zuen aurrekontuak negoziazio legegileak gaindi ditzan. 2018an, EBko ordezkariak iraunkorren aurrean, hau da, Europar Batasuneko eurodiputatu eta ordezkarien aurrean zenbait ekintza burutu dira finantzazio-tresna berri hau defendatze aldera, berrikuntzaren eremuko eskualde arteko lankidetzarako.

⁴ COM(2018) 375 final

⁵ Kontseiluak 2019ko otsailaren 15eko akordio partzialaren bidez erabaki du osagai hori FEDER/FC Arautegian txertatzea.

⁶ Ikusi erantsitako Eusko Jaurlaritzaren 2018ko otsaileko iritzi-dokumentua.

Fatxada atlantikoko lankidetzari dagokionez, Euskadik 2018ko udatik izandako mobilizazioari esker, Itsasoko Estrategia Atlantikoa (EMA) makroeskualde bihurtzearen gaia Atlantic Strategy Group (ASG) Taldearen agendan sartu da; talde hori EMAREN gobernantza-organoa da eta bost estatu atlantikoak biltzen ditu. Horrez gain, eskualde atlantikoaren agendan txertatu da gaia, zehazki, CRPMren Arku Atlantikoko Batzordearen bitartez.

Eusko Jaurlaritzak makroeskualde bat bihurtzearen abantailak adierazi ditu, funtsean, hauek:

- entitate politiko handiagoa;
- maila anitzeko gobernantza eta eskualdeen eskubide osoko parte-hartzea;
- itsas eremutik harago, lankidetzaren eremuak lurralde-izaerako eremuetara zabaltzea;
- Europako funtsekiko lerrokatze handiagoa;
- eta hirugarren herrialdeak elkartzeko aukera (Brexit)

Migrazio-gaiei dagokienez, 2018an, Periferiako eta Itsasertzeko Eskualdeen Konferentziak (aurrerantzean, CRPM) maila anitzeko gobernantzaren ikuspegia sustatzen jarraitu du migrazioaren kudeaketari dagokionean. Horrez gain, kideekin lan egin du, eremu honetan, lankidetzaren indartze aldera. Horretarako, elementu giltzarri bat da eskualdeko agintaritzen artean ikuspegi berritzaileak eta esperientzia egokiak partekatzea. Xede horrekin, Eusko Jaurlaritzak migratzaileen integrazioa kudeatzeko jardunbide egokien identifikazioan parte hartu zuen, Euskadin errefuxiatuak hartzeko AUZOLANA programaren inguruko informazioa emanez. Ekarpen horrek lagundu du CRPMren Gaien Dokumentu bat egiten, hain zuzen ere, migrazioa lekuan bertan kudeatzeari buruzkoa. Zehazki, dokumentua Bruselan apirilaren 23an antolatutako maila altuko hitzaldi honetan aurkeztu zen: “Migrazioa eta asiloa: maila anitzeko gobernantzaren ikuspegi baterantz”.

Horrez gain, lan horrekin jarraituz, CRPMk migrazioaren kanpoko dimentsioa eta garapen-estrategiak lantzen ditu. Halaber, dimentsio horren inguruko Gaien Dokumentu berri bat idazten ari da orain, zeinean Eusko Jaurlaritzak jardunbide egokiak proposatu dituen.

Gainera, martxoaren 6an eta 7an, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendariak Europako Migrazio Foroaren urteko topaketan hartu zuen parte. Foro horretan, Euskadik herritar immigranteen gizarteratzerako eta parte-hartze sozialerako foroaren esperientzia aurkeztu zuen, euskal administrazio publikoak, gobernuz kanpoko erakundeak, elkarteak, sindikatuak eta enpresak biltzen dituen. Horrela, dituen batzorde desberdinak azaldu zituen (osasuna; gizarte-baliabideak eta etxebizitza; lana; berme juridikoak eta giza

eskubideak; parte-hartzea, kultura eta sentsibilizazioa eta hezkuntza), baita nola lan egiten den ere.

Itsas eta arrantza gaiei dagokienez, CRPMren arrantza lantaldeak etorkizuneko Europako Itsas eta Arrantza Funtzaren (FEMP) inguruko iritzia emateko dokumentu bat idatzi zuen 2021-2027 eperako. Bertan, Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak jaso ziren eta eskualde mailako programa operatiboak edukitzeko aukera izan zen ekarpen nagusia.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak CRPMren iritzia emateko dokumentuaren idazketan parte hartu zuen, hain zuzen ere, nekazaritza politikaren eremuan, etorkizuneko urte anitzeko finantza-esparruaren lehentasunak zehazteko. Modernizatutako eta sinplifikatutako nekazaritza politika erkide baten bidez, nekazaritza-guneen eta landa-guneen erronka nagusiei aurre egin ahalko zaie eta, aldi berean, Batzordearen lehentasun politikoak lortzen lagunduko da, hau da, enplegua eta hazkundera. Horrekin batera, garapen iraunkorra eta emaitzetan, sinplifikazioan eta subsidiarioritasunean oinarritutako aurrekontu bat bultzatuko dira.

2018an, Europako Batzordeak bioekonomiaren arloko estrategia berria aurkeztu zuen, Europa iraunkorra lortze aldera. Mugatutako ekosistemen eta baliabide biologikoen mundu honetan, beharrezkoa da berrikuntza-efortzu bat egitea herritarrak elikatzeko eta ur edangarria eta energia garbiak hornitzeko. Bioekonomiak ahalbidetzen du algak erregai bihurtzea, plastikoa birziklatzea, hondakinak altzariak edo arropa berria bihurtzea edo azpiproduktu industrialak oinarri biologikoko ongarriak bihurtzea. Eusko Jaurlaritzak ere eman ditu aurrerapausoak norabide horretan. Eremu honetan burututako jarduerak aurkeztu zituen Bruselan maitatzean ospatutako Norway House deritzonaren ekitaldi batean. Horrez gain, lantalde bat sortu zuen bioekonomiako berezko estrategia bat idazteko erakunde hauekin: papera, egurra, energia eta ingurumenaren arloko klusterrak, Eusko Jaurlaritzaren zenbait zuzendaritza, Mondragon Taldea, ikerketa-zentroak, Euskadiren Europako Delegazioa, etab.

Garraioei dagokienez, Batzordeak maitatzean aurkeztu zuen “Europa Konektatu” Mekanismo berriarentzako proposamena, non Atlantikoko Korridorearen (hor euskal “Y” kokatzen da) eta Mediterraneoaren arteko Iruñearen bidezko konexioa jaso zen. 2018an zehar, Eusko Jaurlaritzak CRPMk Batzordearen proposamenean sakontzeko aurkeztutako zuzenketa idazketan hartu zuen parte.

Vanguard Initiative sareak bere espezializazio adimenduneko estrategietan oinarrituta elkarlanean ari diren Europako eskualde industrializatuak biltzen ditu eta Euskadik horretan duen parte-hartzeari dagokionez, nabarmendu behar da itsasoko energia berriztagarriei buruzko pilotu-proiektua (Euskadik eta Eskoziak zuzendutakoa) Europako Batzordearen Eskualdeko eta Hiriko Zuzendaritza Nagusiak hautatu zuela. Batzordearen babesari esker, pilotu-proiektuak aholkularitzako kanpoko zerbitzu bat eduki du hedapen- eta komertzializazio-jardueretarako. Funtzak Eskualde Garapenerako Europako Funtsetik (FEDER) datoz.

Ikerketa eta berrikuntza politikari dagokionez, 2018an, Europako Batzordeak kontsulta publiko bat ireki zuen Europar Batasunak ikerketaren eta berrikuntzaren eremuan - besteak beste- dituen funtsen inguruan, hain zuzen ere, maiatzaren 2an aurkeztu zuen 2020ren osteko urte anitzeko finantza-esparrurako proposamena prestatze aldera. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak bere izenean hartu zuen parte aipatutako kontsulta publikoan eta, horrez gain, ERRIN saretik egindako ekarpena koordinatu zuen.

2018ko lehenengo seihilekoan, Europako Batzordeak 2021-2027 eperako Ikerketa eta Berrikuntza Esparru-programa prestatzeko lanekin jarraitu zuen. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, hilabete horietan, programa horren inguruko iritzia emateko dokumentua hedatu zuen gai horretan diharduten Europako sare eta erakunde nagusien artean, kontuan har zezaten. Dokumentu horretan zenbait gomendio egiten ziren, hala nola: aurrekontu sendo eta orekatua izatea; Europako Berrikuntza Kontseilua, berrikuntzaren alorrean lankidetzak sustatzeko tresna gisa; ikerketa industrialaren aldeko babesa zientzia bikainaren eremuan; inpaktuaren eta emaitzak merkatura transferitzearen garrantzia; parte-hartze industrialak bermatzea; lankidetzak hitzarmenekin jarraitzea (PPP eta JTI); sinplifikazioa eta sinergiak, besteak beste. Ekarpene horietako asko islatu ziren Europako Batzordeak joan den ekainaren 9an eta Europa Horizontea izenarekin 2021-2027 aldirako aurkeztu zuen etorkizuneko Ikerketa eta Berrikuntzako Esparru-programaren proposamenean.

Klima-aldaketari buruzko politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak Europako zenbait forotan parte hartu zuen 2018an, Euskadi klima-aldaketaren aurkako borrokarekin konprometitutako eskualde gisa kokatzeko xedez, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta energia garbiak lortzeko politika handinahiei esker. Zentzu horretan, Ingurumen, Lurralde-plangintza eta Etxebizitza Sailak klima-aldaketara lurralde-plangintzaren bitartez egokitzeko euskal esperientzia aurkeztu zuen ICLEI eta CRPM sareek Europako Aste Berdearen esparruan antolatutako ekitaldi batean.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak “EBren klima-aldaketara egokitzeko estrategiaren ebaluazioari” buruzko Europako Batzordearen kontsulta publikoan hartu zuen parte. Horretan, nabarmendu egin zen beharrezkoa dela maila anitzeko gobernantza funtzionaleko esparru bat, tokiko eta eskualdeko entitateek klima-aldaketara egokitzeko neurriak abiarazi ahal izateko; izan ere, eskualdeak eta hiriak dira protagonista nagusiak lurraldeek klima-aldaketaren aurrean duten ahultasuna murrizteko orduan. Horrez gain, lankidetzak estua eduki zuen CRPMren Klima-aldaketako Task Forcekin horren inguruko iritzi politikoen lanketan.

Bestalde, 2018ko azaroan, Europako Batzordeak “EBren klima-ekintzaren epe luzerako estrategia” aurkeztu zuen. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak aurretik dokumentu hori prestatzeko irekitako kontsulta publikoan hartu zuen parte. Ekarpene

hori gauzatu egin zen CRPMren Klima-aldaketaren Task Forcen esparruan egindako iritzi-dokumentu baten aurkezpenean.

Politika energetikoari dagokionez, Energiaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza Nagusia Europako Batzordearekin eta beste eragile eta bazkide europar batzuekin bildu zen trantsizio energetikoari buruzko proiektuak aurkezteko eta jardunbide egokiak partekatzeko. Horri esker, Euskadi energia-politika handizalea duen erreferentziazko eskualde gisa kokatu zen.

2018an zehar, eskualde estrategiko gisa kokatu zen, espezializazio adimenduneko plataformen barruan, lankidetzaren hitzarmen berrietan parte hartzeari esker, besteak beste, baterientzako material aurreratuen hitzarmenean. Era berean, Arku Atlantikoaren Batzordeko (CRPM) itsas-energia berriztagarrien taldea koordinatzen jarraitzen du.

Politika industrialaren alorrean, Euskadik lagundu du eskualde arteko lankidetzaren Europako etorkizuneko hazkundearen, berrikuntzaren eta inbertsioaren aldeko politiketan zeharkako elementu gisa kokatzen, zehazki, Vanguard Initiative Sarean aktiboki parte hartuz. Zehazki, eskualdeetako berrikuntza-ekosistemen osagarritasuna bultzatzearen alde egiten da, lankidetzaren hitzarmenak ezarriz espezializazio adimenduneko estrategiak partekatzen dituzten eta helburu komunitarantz elkarrekin aurrera egin nahi duten eskualdeen artean.

Halaber, 2018an zehar, Euskadik Europako lurralderik aktiboenetakoa izaten jarraitu du espezializazio adimenduneko 3 plataformetan (modernizazio industrialak, energia eta nekazaritzako elikagaiak). Plataforma horiek Europako Batzordeak sortu ditu eta Vanguard Initiative Sarearen eskualde arteko lankidetzako metodologian oinarritzen dira.

Gogorarazi behar da Euskadik Eskoziarekin batera koordinatzen dituela itsas-energia berriztagarrien eremuan batera lan egiteko konpromisoa duten eskualdeak; bestalde, Euskadik Provence-Alpes-Cote d'Azur (PACA) eskualdearekin batera zuzentzen du eskualdeen lankidetzaren hitzarmen bat *smart grids* deritzonen arloan. Horrez gain, Euskadik bazkide gisa hartzen du parte beste lankidetzaren hitzarmen batzuetan: trazabilitatea eta makrodatuak, biltegitratze energetikorako material berriak edo fabrikazio eraginkor eta iraunkorra.

Bere lana aitortze aldera, Europako Batzordeak Euskadi aukeratu zuen espezializazio adimenduneko hiru plataformen lehenengo baterako bilera hartzeko, Bilbon ospatu zena 2018ko azaroaren 27an eta 28an. Era berean, Euskadi modernizazio industrialeko eta energiako espezializazio adimenduneko plataformaren Zuzendaritza Batzordean dago.

Eusko Jaurlaritzak parte hartzen duen Interreg Europe “S34GROWTH” proiektuaren esparruan, 2018an zehar, lan-bisitak egin dira Herbehereetako Hegoaldera eta Flandriara. Lan-bileren zein zuzeneko bisiten helburua zen xehetasunez ezagutzea eskualde horietako berrikuntza-ekosistema eta enpresentzako babes-tresnak. Horrez gain, beste xede bat zen gure lurraldeetako berrikuntza-eragileen arteko konexio hobea ahalbidetzen duen eskualde arteko laguntzen programa bat sortzeko aukeraren inguruan eztabaidatzea.

Zibersegurtasunaren eremuan, Zibersegurtasuneko Europako Antolakundearen (ECSO) 2018ko ekaineko Batzar Nagusian, Zibersegurtasuneko Euskal Zentroa aukeratu zen ECSOren Zuzendaritza Kontseiluan parte hartzeko. ECSO Europako elkarte publiko-pribatu bat da eta bere helburua da ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak sustatzea segurtasun zibernetikoaren eremuan, baita industrian zibersegurtasuneko ohitura onak sorraraztea ere. Elkarrekin eragile hauek biltzen ditu: enpresa handien ordezkariak, ETEak, zentro teknologikoak, unibertsitateak, klusterrak eta nazio, eskualde zein toki mailako administrazioak.

Aurreko urteetan bezalaxe, hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremuan, Euskadi erreferentzia izan da Europako agendan, ekintza eta ekimen desberdinetan parte hartuz lanbide-heziketaren eta goi-mailako hezkuntzaren eremuan.

2018ko azaroan, berriz ere gonbidatu zuten Euskadi Europako Batzordearen LHren Europako Astearen esku hartzera; hala, Europako erreferentziazko eskualdeen artean aukeratu zuten. Era berean, sailburuordetzak aktiboki parte hartu du kontraste-saioetan Europako Batzordearekin eta Grow Zuzendaritza Nagusiarekin eta Berrikuntzaren Europako Agentziarekin (JRC) egituratutako eta koordinatutako elkarrizketarako saioetan ere bai. Horrez gain, LHren eta goi-mailako hezkuntzaren bikaintasunarekin lotutako batzordearen ekintzetan parte hartu da eta ekarpenak egin dira; gainera, LHren eremuko Bikaintasun Deialdira aurkeztutako proiektu bat egin da eta Euskadik Europako zenbait Erasmus proiektutan parte hartzeko aukera ireki da. Goi-mailako hezkuntzari dagokionez, Euskadiko Erasmus Mundus Masterrak indartu dira eta aholkularitza eman da nazioartekotzearen eremuan.

Unibertsitatea Enpresa Europako Estrategiaren segimendua egin da eta zubiak finkatu dira unibertsitatea-enpresa eremuko arduradunak diren batzordearen zerbitzuekin, hain zuzen ere, Euskadi 2019an egingo diren foroetan txertatze aldera. Era berean, berrikuntza-enpresa-unibertsitatearekin lotutako adierazleak hurbiletik jarraitu dira eta 2019an zehar Europako jarduera bat egitea aurreikusi da.

Euskadiren parte-hartzea duten Erasmus + programaren esparruko proiektuen kopurua oso nabaria da. LHko zentroak eta euskal unibertsitateak babesteko egiturarekin jarraitzen da, horiek nazioartekotzeko eta Europako proiektuetan inplikatzeko.

Kultura, IKS eta diplomazia kulturalari dagokienez, INTERREG Europea CREADIS3 /Smart Specialisation Creative District proiektuaren babesari esker, Euskadi industria hauen aldeko estrategia bat sustatzen ari diren Europako eskualdeen taldean dago. Europako agendak lagundu du etorkizuneko Industria Kultural eta Sortzaileen euskal strategiaren urratsak zehazten; hori Espezializazio Adimenduneko Euskal Strategiaren parte da. Europako Parlamentuak eta Batzordeak Euskadiren lekua aitortu dute; horretarako, Flandriarekin eta CREADIS3 proiektuko Europako bazkideekin egindako lana funtsezkoa izan da.

Duela urte batzuk diplomazia kulturalaren eremuan abiarazitako lan-ildoarekin jarraituz, Etxepare Institutuak EUNIC Brusela Erakundeak sustatutako ekintzetan hartu du parte, bai Transpoesie ekimenaren ekintzetan, bai Bruselako Komikiaren Azokan. Bi ekimen horietan, euskara eta euskal literatura kokatu eta ikusarazi dira. Halaber, aktiboki parte hartu da diplomazia kulturalaren Europako strategiaren etapetan.

Ondarearen Europako Urtean, Euskadik aktiboki hartu du parte eta Europako Urtearen zenbait "label" jaso ditu. Ekimen desberdinak koordinatu dira eskualde-dimentsioa ikusarazteko eta defendatzeko.

Garapenerako lankidetzaren eremuan, lankidetzaren eremuko tokiko eta eskualdeko agintaritzen Europako plataformak Lankidetzaren Euskal Agentzia gonbidatu egin du antolakuntzaren parte izatera. Agentziak bat egin du Euskal Fondoarekin, bazkideak izanik UE- PLATFORMA 2019-2021 Lankidetzaren hitzarmen Estrategikoan. Era berean, Euskadik aktiboki parte hartu du ELGAK eta Batzordeak Garapen Iraunkorrerako Helburuei eta lankidetzaren deszentralizatuari buruz egindako azterlanetan eta, horrekin batera, EBko foro eta kontsultetan parte hartu du, 2030 Agenda Europako Estrategia bat sustatze aldera.

3. Beste bisita eta topaketa batzuk

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik ehun bilera eta topaketa interesgarri baino gehiago antolatu dira euskal politika eta ekonomiaren sektore garrantzitsuentzat, Europako erakundeetako eta beste antolakuntza batzuetako ordezkariekin; helburua zen euskal interesen posizionamenduari buruzko lehentasunezko dosierrak jorratzea, iritziak eta esperientziak trukatzea eta intereseko harremanak sortzea.

Estatuko Laguntzen dosierren kasu konkretuan, Eusko Jaurlaritzak bere jarrera defendatu eta jakinarazi du gobernuaren jarduera-alorretan eragina duten espedienteetan, hala nola: (i) arrantzaren alorrean, Indiako Ozeanoan diharduten atunontzien segurtasuna bermatzeko laguntzak; (ii) industriaren alorrean, Gauzatu Industria laguntza-programa; (iii) hizkuntza-politikaren alorrean, euskara sustatzeko lerro desberdinak eta, (iv) fiskalitatearen alorrean, Espainiako portuen diru-sarrereren zerga-ordainketari buruzko espediente bat.

4. Egungo gaiei buruzko konferentzietan eta eztabaidetan izandako esku-hartzeak. Euskadirentzat interesgarriak ziren ekitaldi eta informazio-bileren antolaketa eta bertan izandako parte-hartzea

5. Eranskinean, parte hartu den konferentzien, ekitaldien eta eztabaiden xehetasuna aurki daiteke, baina, jarraian, garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak aipatzen dira.

Migrazioari, enpleguari eta gizarte-politikei dagokienez, martxoaren 6an eta 7an, Eusko Jaurlaritzako Enpleguako eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendariak Migrazioaren Europako Foroaren urteko topaketan hartu zuen parte; foroa gizarte zibilak, Europako erakundeek eta nazio, eskualde zein toki agintaritzek migrazioaren gaiaren inguruan hitz egiteko plataforma bat da. Gainera, apirilaren 11n, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Gizarte Ekonomiako zuzendariak gizarte ekonomiari buruzko konferentzia batean hartu zuen parte Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialean.

Azaroaren 27an, SPRIren zuzendari nagusiak eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak Europako espezializazio adimenduneko hiru plataformen baterako lehenengo bileran hartu zuten parte, Bilbon ospatu zena azaroaren 27an eta 28an.

5. EBrekin lotutako sare, erakunde eta foroetan egindako lana

Nabarmendu behar da Euskadik Ikerketarako eta Berrikuntzarako Europako Eskualdeen Sareko (ERRIN) gobernu-organoetan parte hartzen duela; zehazki,

RIS3ren lantaldea koordinatzen du; sareko Policy Taldeko kidea da eta energiari eta klima-aldaketari buruzko lantaldean hartzen du parte.

Gainera, Euskadi Arku Atlantikoko Batzordearen lantaldeetako kidea da eta horren gobernantza-organoen bileretan parte hartu du. 2018an, batzordearen batzarra eta lantaldea Comillasen (Kantabria) egin ziren; horretan, Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendariak hartu zuen parte, baita urrian Madeirako Funchal hirian (Portugal) egindako batzordearen osoko bilkuran ere. Euskadik Arku Atlantikoko Batzordearen lantaldeetan parte hartzen du, baita horiek urtean bitan ospatzen dituzten *hub* bileretan ere. Zehazki, 2017an itsas energien eta energia berriztagarrien lantaldearen koordinazioaz arduratu zen.

2018an, Euskadi urrian Madeirako Funchal hirian (Portugal) ospatutako CRPMren Batzar Nagusira joan zen eta aktiboki hartzen du parte CRPMren Klima-aldaketako Task Forcean, baita horren beste Task Force batzuetan eta/edo lantalde batzuetan ere.

Euskadi Vanguard Initiative Sarearen kide sortzaileetako bat da eta, gaur egun, horien kideen artean daude Europako 35 eskualde.

Kulturaren eremuan, Eusko Jaurlaritzak Europako RICC Sarea koordinatzen du, 26 eskualde biltzen dituena Industria Kultural eta Sortzaileen eta RIS3ren eremuan. Era berean, Etxepare Institutua EBko Kultura Institutu Nazionalen Europako Sareko kide elkartua da.

Hezkuntzaren eremuan, Eusko Jaurlaritzak EARLALL sarearen presidentzia dauka.

Gainera, Euskadi hizkuntza ez-hegemonikoen sustapenerako NPLD sareko kidea da; horrekin batera, lankidetzaren eremuko tokiko eta eskualdeko agintaritzen Europako plataforman dago, Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Euskal Fondoaren parte-hartzearekin.

Nekazaritza eta elikadura gaietan, Eusko Jaurlaritzak Genetikoki Aldatutako Organismorik gabeko Eskualdeen Sareko Zuzendaritza Batzordean hartzen du parte, baita REGAL sareko (Gastronomiaren eta Elikaduraren aldeko Eskualdeak) zuzendaritzan ere.

Aurrekoaz gain, Euromontana Sarearen presidentzia dauka, mendiko nekazaritza duten eskualdeak biltzen dituena.

Euskadik parte hartzen duen sare tematiko guztiak jasotzen dira **6. Eranskinean**.

6. EBko zuzenbideko espedienteak jakinaraztea eta komunikatzea

Lehen aipatu den bezala, euskal erakundeen ohiko lanaren gai batzuek Europar Batasunaren aurrean jardutera eramaten dute berez. Batez ere, EBko zuzenbidea betetzetik ondorioztatzen diren betebeharrekin lotutakoak dira. Horri dagokionez, aipatzekoa da Europako Gaietarako Zuzendaritzak Jaurlaritzako Sailei zuzenduta gauzatzen duen aholkularitza-lana, Estatuko Laguntzen eta EBko Zuzenbidearen arloko arau-hausteen prozeduren eremuan, Estatuaren Administrazioarekin egiten diren komunikazioak autonomia erkidegoan koordinatzen dituen organo gisa.

Alor horretan, azpimarratzekoak dira, alde batetik, Lehiaren Zuzenbidearekin eta Estatuko Laguntzekin zerikusia duten jarduera guztiak. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko laguntzen espedienteak jakinarazten zaizkio Europako Batzordeari, hala exijitzen den kasuetan; halaber, Batzordea informatzeko betebeharrak betetzen dira, horrek dossier zehatzetan egindako errekerimenduei dagokienez. Aurrekoaz gain, laguntzen inguruko datu estatistikoak bidaltzen dira.

Testuinguru horretan, 2018ko urriaren 22an, bilera bat egin zen Lehiakortasunerako Zuzendaritza Nagusiarekin Bruselan, Espainiako portuen diru-sarreraren zerga-ordainketari buruzko espedientea jorratzeko. Horretan, besteak beste, hauek hartu zuten parte: Europako Gaietarako Zuzendaritzak, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorra.

Europar Batasuneko zuzenbidearen arau-hausteen prozedurei dagokienez, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik, informazioa eta dokumentazioa bildatzeko, aholkatzeko eta konponbideak bilatzeko betebeharra betetzen jarraitzen dugu, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoa inplikaturik dagoen prozedura guztietan.

7. EBko gaiak komunikatzea eta hedatzea

Aurreko urteetan egin den bezala, 2018an, KHINren webguneko edukia eguneratu egin da euskadi.eus atarian.

Bestalde, 2018an, Euskadin informazio europarra emateko dagoen tresna eta atari nagusiaren, hau da, Europako Informazioaren Euskal Sarearen (REVIE - www.revie.euskadi.eus) berrikuspena, optimizazioa eta segimendua egiten jarraitu da. Horrek euskadi.eus atariarekin eta Euskadiko entitate publikoen inguruko webguneekin lotzen du.

Halaber, gure erakundeek eremu europarrean burutzen dituzten jarduera interesgarriak jakinarazi dira batzuetan irekia.eus webgunean eta horien berri eman zaie ohiko prentsako kontaktuei.

Europako gaiak hedatzeko eginkizunaren barruan eta Erresuma Batua EBtik ateratzearen eta horrek izango dituen ondorioen garrantziaren aurrean, Kanpo

Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak prozesu honen inguruko atal eskusibo bat sortu egin du euskadi.eus webgunean.

Bestalde, 2018an, Europako Gaietarako Zuzendaritzak euskarara itzuli zituen Europako Batzordeko Argitalpenen Zerbitzuak argitaratutako liburukiak. Liburukiak Europako Informazioaren Euskal Sareko (REVIE) kideei eta akademiko batzuei bidali zizkieten.

Hauek izan ziren euskarara itzultako liburukiak:

- El Libro blanco sobre el Futuro de Europa / Europaren Etorkizunari buruzko Liburu Zuria.
Euskarazko liburukia eskura daiteke helbide honetan:
http://www.euskadi.eus/pdf/europa_web.pdf
- El ABC del Derecho de la Unión Europea / Europar Batasuneko zuzenbidearen ABC-a
Euskarazko liburukia eskura daiteke helbide honetan:
<http://www.euskadi.eus/pdf/Europa-Batasuneko-zuzenbidearen-ABCa.pdf>
- Guía para la Iniciativa Ciudadana Europea / Europako Herritar Ekimenerako gida
Euskarazko liburukia eskura daiteke helbide honetan:
http://www.euskadi.eus/pdf/Europar_Herritar_Ekimenerako_gida.pdf

IV. MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZAREN ALORREAN GAUZATUTAKO JARDUERAK

“Akitania Euskadi Euroeskualdea” izeneko Lurralde Lankidetzarako Europar Taldea (LLET) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 5eko 1082/2006 (CE) Erregelamenduan eta Erregelamendu horren aplikazio eraginkorrerako beharrezkoak diren neurriak hartzen dituen urtarrilaren 18ko 37/2008 Errege Dekretuan oinarrituta eratu zen eta, horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Akitaniako Eskualdeak 2011ko abenduaren 12an sinatu zituzten Hitzarmen eta Estatutuen bitartez.

Berritutako hitzarmenarekin eta estatutuekin, 2017ko urtarrilaren 30etik, Nafarroako Foru Komunitatea Euroeskualdearen kide ofiziala da eta bere izena hau da: “Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea”. Bere urteko aurrekontua 1.650.000 eurokoa da.

LLETaren helburu nagusia da lankidetzaren ekintzak gauzatzea Euroeskualdea osatzen duten hiru lurraldeen garapen ekonomiko, sozial eta kulturalari laguntzeko. Era berean, helburutzat hartzen du Euroeskualdea ordezkatzeko, bai tokiko, eskualdeko eta nazio mailako instantzietan eta Europakoetan eta nazioartekoetan.

Akitania / Euskadi Euroeskualdearen Plan Estrategikoa 2014ko abenduaren 19an aurkeztu zen Hendaian eta LLETaren urte anitzeko “ibilbide-orria” da. Hori 2018an eguneratu egin da, Nafarroako Foru Komunitatea atxikitzearen ondoriozko lurralde-

ordena berria eta Frantziako eskualdeei eragin dien lurralde-erreforma kontuan hartzeko. Izan ere, Akitania, Limousin eta Poitou-Charentes eskualdeak taldekatu dira.

Mugaz gaindiko lurraldeko eragile ugari hartu dute parte plan estrategikoaren eguneraketa-prozesuan. Euroeskualdearen erronka berria da bere ekintzak eskala geografiko berri honetan garatzea: ia-ia 9 milioi biztanle dituen lurralde bat, EBren azaleraren eta BPGren % 2arekin.

Halaber, azpimarratu behar da beste dokumentu estrategiko bat eguneratu egin dela, "Euroeskualdea zifretan" izenekoa; dokumentu horrek datu estatistikoak jasotzen ditu adierazle europarretan oinarrituta.

Euroeskualdeak urtero burutzen duen jarduerarik garrantzitsuenetariko bat da mugaz gaindiko proiektuei zuzendutako laguntzen deialdiak egitea, Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako erakundeen arteko lankidetzak bultzatzen dituztenak.

2018an, arlo hauetako proiektuak finantzatu dira:

Kultura, hezkuntza, gazteria, lanbide-heziketa, kirola eta eleaniztasuna: 400.000 euroko zuzkidurarekin, "Euroeskualdeko herritartasuna" izeneko Euroeskualdeko Estrategiaren 1. ardatzaren barruko lehenengo deialdian, 19 proiektu finantzatu ziren.

Aeronautikoa eta aeroespaziala, (bio)osasuna, nekazaritza eta nekazaritza eta elikadurako industria, energia berriztagarriak, itsasoko eta kostaldeko baliabideak eta basoak, egurra eta eraikuntza jasangarria izan dira bigarren deialdian irekitako sektoreak, "Ezagutzaren ekonomia - berrikuntza - enpresen lehiakortasuna" izeneko Euroeskualdeko Estrategiaren 2. ardatzaren barruan lehentasunezko zatitza ezarritako arlo guztiak barne. 300.000ko zuzkidura batekin, 5 proiektu finantzatu dira.

Aurkeztutako proiektuen hautaketan, zenbait alderdi lehenetsi dira diru-laguntzaren proiektu onuradunak hautatzerakoan, besteak beste, hauek:

- Proiektuaren interesa eta orijinaltasuna.
- Proiektu horren inguruan garatutako animazio-programaren kalitatea eta aberastasuna.
- Inplikaturako eragileen lurralde-egituraren eta ordezkagarritasunaren aniztasuna.
- Eragileen ibilbidea.

Lankidetzaren hitzarmen estrategikoei dagokienez, 2018ko ekitaldian, bi lankidetzaren berri sinatu dira:

- "Euskadiko Errugbi Federazioa" (euskal errugbiarentzako mugaz gaindiko esparrua): emandako diru-laguntza: 60.000 €

- “Association filière du Porc Basque Kintoa” (liburu genealogiko komuna sortzeko errolda): emandako diru-laguntza: 18.000 €.

Gainera, aurretik existitzen ziren 4 lankidetzeta-hitzarmen berri dira:

- “Euroeskualdeko Erasmus”: emandako diru-laguntza: 60.000 €
- “Aquitaine.eus” (harreman artistikoak): emandako diru-laguntza: 50.000 €
- “COP” (ikaskuntza eta prestakuntza iraunkorrak): emandako diru-laguntza: 40.000 €
- “Zubiak” (euskarazko irrati-programa): emandako diru-laguntza: 50.000 €.

Euroeskualdeko prestakuntza eta enplegurako estrategia

2018an, POCTEFaren (Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko Lurralde Lankidetzarako Programa 2014-2020 aldirako) lehenengo deialdian aukeratutako “ENPLEGUA: Akitania-Euskadi Euroeskualdeko enplegu-arro baten garapena” izeneko proiektuaren azken ekintzak burutu dira. Hauek izan dira emaitzak:

- Mugaz gaindiko enpleguari buruzko azterlan bat, zehazki, Euroeskualdeko enplegu-arroaren egungo errealitatea identifikatzeko, egoeraren ikuspegi panoramikoa, estatistikoa eta soziologikoa ezagutzeko eta mugaz gaindikoak enpleguan izan ditzakeen efektuak aztertzeko.
- Enplegua bilatzen duten pertsonentzako eta hiru lurraldeetako langileentzako informazio baliagarria partekatzeko webgune bat.
- Epe luzerako lankidetzeta estuagoa sustatzea hiru lurraldeetan enpleguaren eremuan diharduten administrazioen arten.

Mugaz gaindiko enplegu-eragileen lehenengo lan-mintegia Hendaian egin zen ekainaren 21ean eta 22an. Ideia da urtero errepikatzea deialdi hau, eragile interesdunen arteko topaketa bultzatzen jarraitze aldera.

Garraioak eta mugikortasuna

Bizikleta: Hurbiletik jarraitu da Ederbidea proiektuaren garapena eta lankidetzeta eskaini da Euroeskualdearen esperientzia emanaz hainbat alderditan, adibidez, bidaiarien informazioan.

Smart City: Smartmob proiektuan, Euroeskualdeak karguen plegu globalari buruzko hausnarketan hartu du parte eta karguen pleguaren zuzendaritzan esku hartu du mugaz gaindiko mugikortasun-eskaintzen mapa sortzeko.

Trenbidea: Lan egiten jarraitu da mugaz gaindiko espazioaren trenbidearen bidezko konexioan egindako ekarpenean, Trasfermuga2 proiektuaren esparruan finantzaturako bi azterlan eginez: trenbide-zerbitzuen antolakuntzarekin lotutako azterlan juridikoa eta eskariarekin lotutako azterlana.

Gainera, Transfermuga proiektuak “Le Monde Smart Cities” eta “Eraiki dezagun Europa mugetatik harago” Sariak jaso ditu (Lurralde Lankidetzarako Europako Taldeen Plataformak ematen ditu).

Eleaniztasuna

Eremu honetan, nabarmentzekoa da 2017an hasi zen POCTEFAk finantzatutako “Eskola Futura” proiektua, Lehen Hezkuntzako irakasleak frantsesez eta euskaraz elebidunak izateko prestatu nahi dituen. Irakasle elebidunen poltsa handitzeko beharretik jaio zen.

Proiektua mugaren bi aldeetako 4 unibertsitatearen artean ezarritako oso lankidetzahitzarmen irmo baten inguruan eraiki da: Bordeleko Unibertsitatea eta bere Irakasleentzako eta Hezkuntzako Goi-mailako Eskola (ESPE), Bordele- Montaigneko Unibertsitatea, EHU eta UPNA. Horrez gain, oso paper garrantzitsua izan dute erakunde hauek: Office Public de la Langue Basque (OPLB) eta Office Public de la Langue Occitane (OPLO).

Lehenengo promozioan (2018koa) UPNAko 11 ikasle eta EHUko 3 daude, 2020ra arte Bordelen daudenak frantsesa ikasten. Horrez gain, lehenengo promozio horretan, Bizkaian euskara ikasten duten Akitania Berriko unibertsitate desberdinetako 7 ikasle daude.

2019-2020 ikasturterako, 12 plaza aurreikusitako dira.

Proiektua Bruselan aurkeztu egin zen Open Days ekitaldian, hau da, eskualdeen eta hirien Europako astean.

Okzitanieraren garapenerako, ikerketa soziolinguistiko bat egingo da Office Public de la Langue Occitane Erakundearekin elkarlanean.

Azkenik, 2018ko azaroan, Donostian ospatu zen Nazioarteko Kongresu hau: “Hizkuntzak, Ondarea, Identitateak. Hezkuntzaren ikuspegia”.

Pirinioetako Lan Komunitatea (PLK) 1983an eratu zen eta kide hauek osatzen dute: Akitania Berria, Okzitania, Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Euskadi eta Andorrako Mugaz gaindiko Lankidetzarako Erakundea.

PLK da Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko 2014-2020ko Lurralde Lankidetzarako Programa Operatiboaren (POCTEFA) Kudeaketa-agintaritzaren Programak ia 190 milioi euro jaso ditu FEDER Funtsetik, deialdietan onartzen diren mugaz gaindiko proiektuetako gastuen % 65eraino finantzatu ahal izateko.

2018an, batetik, lehenengo deialdian programatutako 58 proiektuen jarraipenean aurreratu da eta, bestetik, bigarren deialdian aukeratutako 62 proiektuak abian jartzen

lagundu da. Horretan programaren guztizko kopuruaren % 40a hartu da. Gainera, proiektuen hirugarren deialdia prestatu da, zeinean gainerako % 20a programatu nahi den.

2018an, Aragoiko Gobernuaren presidentziaren lehenengo urtean, PLKren Zuzendaritza Batzordea 5 aldiz bildu zen (otsailak 14, apirilak 25, maiatzak 29, irailak 12 eta azaroak 12). Halaber, azaroaren 13an, Osoko Kontseilua ospatu zen Zaragozan.

Hauk izan dira 2018an zehar burututako eta sustatuko jarduketak:

Pirinioetako Plan Estrategikoaren lanketako barne-etapa amaitu zen Pirinioetako Estrategiaren onespenerekin; horrek 2018-2024 eperako garapen-orientabideak eta lehentasunezko ekintzak ezartzen ditu, Pirinioetako berezko jardura dinamizatzailerak burutzeko POCTEFAren kudeaketa-esparrutik kanpo. Era berean, Pirinioetako Estrategiaren parte-hartze eta balioztapen prozesuko lehenengo bi faseak burutu dira: POCTEFA proiektuen eta beste elkarrizketakide nabarmen batzuen kapitalizazioko eta informazioa biltzeko 1. fasea eta kanpoko iritzi-emaile nabarmenek parte hartzeko 2. fasea.

PLKren *lobby*-aren papera sustatu da, 2020tik aurrerako kohesio-politikari buruzko Adierazpen Politiko bat jasotzen duen posizionamendu-dokumentu bat idatziz. Dokumentu hori bidali zaie Espainiako eta Frantziako Agintaritza Nazionaleri, Europako Batzordeari eta Europako Eskualdeetako Lantaldeari.

Mugaz gaindiko osasun-larrialdien proiektu bat zuzendu da mugez bi aldeetako osasun-agintaritza eskudunak bilduz, zehazki mugaz gaindiko osasuneko esku-hartzea errazte aldera. Europako Batzordearen “Europar Batasunean mugako eskualdeak indartzea” B-SOLUTIONS deialdiaren esparruan aukeratutako pilotu-proiektuetako bat da.

Azkenik, Klima-aldaketako Pirinioetako Behatokia (OPCC) indartzen jarraitu da, bereziki, OPCC2 eta PHUSICOS proiektuetan parte hartuz.

V. ETORKIZUNEAN JARDUTEKO PROPOSAMENAK

A. Zeharkako izaera duten proposamenak

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik, Euskadiren posizionamendu politikoan eta ekarpenetan lan egiten jarraituko da Europar Batasunaren erakunde-ziklo berriaren politika desberdinen aurrean, Europa sozialago, lehiakorrago, solidarioago, jasangarriago eta politikoago baten lorpena defendatuz. Ikusgarritasun handiagoa ematen diena eskualdeei Batasunaren etorkizuneko definizioan, arreta maila anitzeko benetako gobernantza baten lorpenean jarritz.

Hala, Periferiako eta Itsasertzeko Eskualdeen Konferentziaren esparruan eta, zehatzago, horren Arku Atlantikoko Batzorde Geografikoan, Itsasertzeko Estrategia Atlantikoaren bilakaera bultzatuko dugu, hain zuzen ere, Makroeskualde Atlantiko baterantz. Gaur egungo Europar Batasunaren joerak lurraldea makroeskualdeetan antolatzea darama; fatxada atlantikoa makroeskualde bihurtzen ez bada, gerta daiteke EBren politiketatik eta finantzaziotik kanpo geratzea. Eusko Jaurlaritzatik, uste dugu une egokia dela aldarrikapen hau berrabiarazteko: Erresuma Batuaren Brexitaren ondorengo egoerak eta MFPreko negoziazioak hori baieztatzen dute. Txosten honetan esan den bezala, Makroeskualde Atlantiko bihurtzeak zenbait abantaila ditu, besteak beste, konpromiso politiko handiagoa, Europako funtsekiko lerrokatzea handiagoa eta jarduketaren eremu zabalagoa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik neurri eta ekintza egokiak sustatuko ditugu ekintza hori burutu ahal izateko.

Euroeskualdeari dagokionez, 2019an, besteak beste, ekintza hauek aurreikusten dira:

- 2019rako proiektuen bi deialdia egitea, aurreko ekitaldiko eremu berberetan:
 - “Kultura, hezkuntza, eleaniztasuna, kirola eta gazteria”
 - “Ezagutzaren ekonomia, berrikuntza eta enpresen lehiakortasuna”
- 450.000 eta 350.000 euroko aurrekontuarekin, hurrenez hurren.
- Bi lankidetzaren hitzarmen estrategiko berri amaitzea. Mugaz gaindiko aliantza berrien bilaketan, 2019an, Euroeskualdeak bi lankidetzaren hitzarmen estrategiko berri sinatu nahi ditu. Lehenengoak Kompar du izena eta bere xedea da mugaz gaindiko guneko ikasleen enplegarritasuna areagotzea sektore sozialean eta soziosanitarioan. Bigarrenaren izena Sasi Ardi da eta bere xedea da mugaz gaindiko sare bat egituratzea eta garatzea Sasi Ardi ardi-arraza garatze aldera.

PLKari dagokionez, POCTEFaren 2014-2020 aldirako proiektuen hirugarren deialdia abian jartzeaz gain, etorkizunera begira aurreikusten den jardueraren nagusia da Pirinioetako Estrategiaren erakundearen parte-hartzerako eta balioztatpenetarako prozesu-faseekin amaitzea, Europako erakundearen aurrean aurkezte aldera. Bestalde, horren dinamizazioa eta ezarpena abiarazi nahi dira.

B. Alor sektorialera zuzendutako proposamenak

Zein dira 2019. urterako eta hurrengoetarako EBn aurreikusita dauden jardunbideak, politika publikoen alorrean? Zein proposamen sektorial zehatzetan lan egingo du Euskadik alor horietan?

2019an, 2021-2027 Urte anitzeko Finantza-esparruaren negoziazioetan zentratuko da eta EBren programazio-aldi horretarako (2021-2027) finantzazio-programa eta tresna guztien inguruko proposamen legegileetan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak aktiboki parte hartuko du legegile-kideen lanean (Europako Parlamentua eta Europar Batasuneko Kontseilua), berezko proposamenen bidez eta ohiko lankidetzaz izaten dugun eskualdeen sareen barruan adostutako proposamenen bidez.

Zehazki, koherzio-politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak estuki lan egingo du Europako eskualdeekin eta bazkideekin interes komunak defendatzeko: eskualde guztientzako koherzio-politika indartsu bat mantentzea, Europako lurralde-lankidetzarako programen defentsa (tradizionalak eta berriak), Europako espezializazio adimenduneko estrategien (RIS3) arteko sinergiak indartzea, etab.

Enpleguaren eta gizarte-politiken eremuan, Gizarte-eskubideen Europako Zutabea ezartzeko proposamen legegile guztien segimendua egingo da, bereziki, familia- eta lan-bizitza uztartzeari buruzko zuzentarau-proposamenarena, berebizikoa delako Euskadirentzat. Horrez gain, Europako Lan-agintaritzaren ezarpenaren segimendua egingo da. Gainera, arreta handiz jarraitu egingo da Europako Plus Gizarte Funtsa (FSE+) berriaren proposamenaren garapena, 101.200 milioi euroko aurrekontua duena. Horrez gain, aldaketa demografikoa edo ekonomia soziala bezalako beste gai batzuk jorratuko dira.

Europako migrazioko politika globalak giltzarria izaten jarraituko du Europar Batasuneko erakundeetako eztabaidetan, migrazioaren kudeaketari erantzun komuna, eraginkorra eta koordinatua emateko lan egiten jarraituko dutenak, betiere elkartasun eta erantzukizun printzipioen esparruan. Horri dagokionez, Europako migrazioko politikarekin lotutako espediente garrantzitsu guztien segimendua egiten jarraituko da, adibidez, honekin lotutakoak: Europako asilo-sistemaren erreforma, errefuxiatuak birkokatzeko programak, migratzaileen integrazioarako politika guztiak eta 2021-2027 Asilo eta Migrazio Funts berria.

Euskaditik, birkokatzeen bidea aldeztu jarraituko dugu nazioarteko babesa behar duten pertsona ahulak Europara ekarri ahal izateko modu legal eta seguru batean eta pertsona horiek gizarte-laguntza globala jaso dezaten bere harrera-erkidegoan, bertan gizarteratu ahal izateko.

Gai ekonomiko eta finantzarioei dagokienez, hilero ospatzen diren ECOFIN Kontseiluen segimendua egiten jarraituko da, baita 2019ko Europako Seihilekoaren prozesuaren etapa desberdinen segimendua ere, arreta berezia jarriz estatu kideetako egoera ekonomiko eta sozialaren urteko analisisian eta herrialdeei zuzendutako gomendioetan.

Fiskalitatearen alorrean, ECOFINen Lantaldeetan parte hartzen jarraituko dugu, Euskal Autonomia Erkidegoaren parte-hartzeari irekita daudenen kasuan. Hala, 2019an, Euskadirentzat interesa duten proposamen legegile guztien jarraipena egingo da; horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: sozietateen gaineko

zergaren finkatutako zerga-oinarri komun bat sortzea; fiskalitate bidezkoago bat EBko jarduera digitalerako eta BEZa modernizatzeko neurriak.

Politika komertzialari dagokionez, EB hirugarren herrialdeekin egiten ari den negoziatio komertzialen egoeraren jarraipena egingo da. Estatu Batuetako Administrazioak neurri protekzionistak jarri dizkie EBko altzairuaren eta aluminioaren inportazioei eta EBk horren aurkako zenbait neurri ezarri ditu; beraz, gerra komertzial horren inguruan ematen diren garapenen jarraipena egingo da.

2019an, oso erne egon beharko dugu Nekazaritza Politika Erkidearen 2020ren ostean erreformatzeko egiten diren proposamenen aurrean. Nekazaritza Politika Erkidea 1962. urtean hasi zen eta, hortaz, Europako politika zaharrenetako bat da. Landa-eremuak eta bitarteko eremuak Europar Batasuneko lurraldearen % 91 dira, haren biztanleriaren % 60, haren balio erantsi gordinaren % 43 eta haren lanpostuen % 56. Beraz, ukaezina da sektorea oso garrantzitsua dela Europar Batasunak bere garapen ekonomikoko helburuak lortu ahal izateko, zehazki, printzipio hauei jarraituz: kohesioa eta elkartasuna, lanpostuen sorkuntza, elikagaien segurtasuna, klima-aldaketaren aurkako borroka, baliabide naturalen erabilera jasangarria eta energia berriztagarriko trantsizioa.

Nekazaritza landa-ekonomia bultzatzen duten faktoreetako bat da: nekazaritzako ustiatzeko 28 milioi pertsona enplegatzen dituzte EBko landa-eremuetan. Nekazaritzako ustiatzeko kopurua % 20 murriztu egin da azkenengo urteotan: 2007ko 13.6 milioietatik 2013ko 10.8 milioietara.

Euskaditik, Eusko Jaurlaritza egungo Nekazaritza Politika Erkidearen erreforma-prozesuaren esparruan subsidiarotasun-printzipioa erabat erabiltzearen alde dago. Zentzu horretan, kezka bat dago, hau da, gerta daitekeela Europako Batzordeak behar beste ez garatzea arautegi-proposamenean. Arautegi horren bidez, arauak ezartzen dira estatu kideek Nekazaritza Politika Erkidearen esparruan egin behar dituzten plan estrategikoei eman beharreko laguntzari dagokionez. 2019an, zentzu horretan lan egin beharko da.

EBko garraio-politikaren muina Europa Barneko Garraio-sare bat da (RTE-T), 28 Estatu Kideak zeharkatzen dituena hazkundera eta lehiakortasuna sustatzeko. Garraio-azpiegituren finantzazioa hirukoiztu egin zen 2014-2020 garaian, 26.000 milioi eurora helduz. Bide handi horietako bat Atlantikoko Korridorea da: Lisboa eta Mannheim/Estrasburgo lotzen ditu, Iberiar Penintsula eta Frantzia zeharkatuz, Euskaditik pasatuz. Eremu honetan, 2019an, "Europa Konektatu" Mekanismoaren arautegi berria onetsiko da 2021-2027 eperako; hala, hori azertu beharko da eta deialdi berrien zain egon beharko gara.

Ikerketa eta berrikuntzako politikari dagokionez, 2019an, nabarmentzekoak izango dira Europa Horizontea (2021-2027) proposamenarekin lotutako erakunde-mailako negoziatioak.

Arreta berezia emango zaio Berrikuntzaren Europako Kontseiluaren pilotu-proiektuari, 2.600 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua izango duena, hain zuzen ere, modu eraginkorragoan babesteko merkatuak sortzen dituen berrikuntzan zentratutako proiektuak. Berrikuntzaren Europako Kontseiluaren pilotu-proiektuaren helburua da bikaintasun-arau berri bat sortzea etorkizun handiko berrikuntzetarako, baina arriskutsuak izan daitezkeen berrikuntzetarako ere bai, horrela Europar Batasuneko babesa kontzentratzen lagunduz.

Politika energetikoari dagokionez, 2019ko lehentasuna izango da 2016ko abenduan aurkeztutako europar guztientzako energia garbiari buruzko paketea behin betiko onartzea.

Europar Batasunaren Gobernantzari buruzko arategi-proposamenari dagokionez, estatu kideek 2019an aurkeztu beharko dituzte Energiako Plan Nazional Integratuak. Horietan estatu azpiko erakundeek ekarpenak kontuan har daitezela lan egingo da.

Bestalde, 2019ko apirilean, Bilbon WindEurope Conference ekitaldia ospatu da, Europako energia eolikoko ekitaldirik garrantzitsuenak,

Klima-aldaketari dagokionez, Energiaren Batasunaren Esparru-estrategia eta Parisko Akordioa aplikatzeko proposamen legegile gehienak aurkeztu ondoren, Europar Batasuna, 2019an, horien aplikazioa azkartzeko ekintza zehatzetan zentratuko da. 2020. urtearen osteko eperako, aurreikusi da emisio-eskubideak erreserbatzea Berrikuntza Funts bat sortzeko –horren aurkezpena 2019an egitea aurreikusten da–. Horren helburua da karbono-emisio txikiko teknologia oso berriztagarriak demostratzea energia-kontsumo handiko industriarentzat, energia berriztagarrietarako eta karbonoa harrapatu eta biltegitzeko jardueretako.

Horrez gain, arreta jarriko da 2019ko irailaren 23an ospatuko den Klimaren Gailurrean. Gailurra jauzi handia izango da handinahi politiko nazional kolektiboan eta aurrerapen handiak erakutsiko ditu ekonomia errealean, zehazki, Klima-aldaketari buruzko Parisko Akordioaren ezarpena azkartzeko agenda sustatuz.

Aurretik aipatu den bezala, 2019 etorkizuneko 2021-2027 Finantza-esparrua eta Programak finkatzeko gelaurrea izango da. Creative Europe Programaren aurrekontua areagotu dela baieztatu da eta Espezializazio Adimenduneko Estrategiarekin lerrotatu da; horrela, lankidetzak kulturalaren rol estrategikoa aitortu eta azpimarratu egiten da, baita industria kultural eta sortzaileak eta diplomazia kulturala ere. Eusko Jaurlaritza da INTERREG Europe CREADIS3 Proiektuaren liderra eta horren emaitzak palanka bat dira Industria Kultural eta Sortzaileen etorkizuneko Euskal Estrategia finkatzeko etapek eta ekintzek dimentsio europar eta nazioarteko dimentsio nabarmenak izan ditzaten; horretarako, 2019. urtea giltzarria izango da. Halaber, RICC/Regional Initiative for Culture and Creativity sarea koordinatzen jarraituko da eta espero da urte hauetako laguntza-lana oparoa izatea, baita Industria Kultural eta Sortzaileen proiektu-

proposamenak finkatzea ere Smart Specialisation Plataforman, zehazki, Euskadiren parte-hartzearekin.

Ikus-entzunezko sektorearen eta *copyright*-arekin lotutako Europako Zuzentarauen transposizioa eta euskal ikus-entzunezko sektorearen potentziala nazioartekotzerako indartzea ere funtsezkoak dira.

2019an, diplomazia kulturalaren eremuko ekimen berritzaileen “mapaketa” zehaztu egingo da; pilotu-proiektuak hautatzeko deialdiak irekiko dira. EUNIC Brusela erakundeko kide elkartu gisa, 2019 oso garrantzitsua izango da Etxepare Euskal Institutuarentzat ere bai. Izan ere, bere ibilbideari esker, esperientzia eta ezagutza dauka diplomazia kulturalaren Europako estrategian estrategiko gisa adierazi diren herrialdeetako batzuetan.

Hezkuntzan, nabarmentzekoa da Lanbide-heziketari eta goi-mailako hezkuntzari aplikatutako bikaintasun-ikuspegia. Beharrezkoa da azpimarratzea Batzordeak konfiantza erakutsi duela Euskadirengan, zehazki, Lanbide-heziketari eta horren emaitzei esker. Lanbide-heziketaren nazioartekotzeak aurrera jarraitzen du eta dimentsio europarra bermatuta dago Lanbide-heziketaren Legeari eta Lanbide-heziketaren V. Planari esker. Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzari dagokionez eta 2019an aurkeztuko den goi-mailako hezkuntzarako plan berriaren akordioaren ostean, Batzordeak unibertsitatearen eta enpresaren eremuan sustatutako gobernuaren ekintzak zubi bat dira ekintzak bultzatu ahal izateko berrikuntzarako adierazleei dagokienez eta Euroeskualdeak eta horren mugaz gaindiko unibertsitate-kanpusak eskaintzen duten potentziala ikusarazteko.

Lankidetzaren eremuan, 2019 urte aktiboa izango da uztailean New Yorkeko ospatuko den Nazioen Maila Altuko Foroa baino lehen erantzunak eman ahal izateko konpromisoerik dagokienez. Abagune ugari izango da Euskadirentzat; izan ere, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko berezko estrategia bat duen Europako eskualde gutxi horietako bat da. Era berean, 2019an, Euskal Fondoaren eta Lankidetzaren Euskal Agentziaren baterako parte-hartzea abiaraziko da PLATFORMAN eta, gainera, deszentralizatutako lankidetzaren berritzaile baten aldeko plan bat egikaritu egingo da.

Euskal industria gure ekonomiaren motor nagusia da eta aukera digitalak erabat eta azkar baliatzearen erronkari aurre egin beharko dio. Funtsezko alderdi bat da gure industriaren epe ertainerako eta luzerako lehiakortasuna bermatzeko. Horregatik, Euskaditik, arreta handiz jarraituko ditugu euskal industrian eragin berezia izan dezaketen proposamen europarrak, bereziki, Basque Industry 4.0 Estrategiarekin bat etorritik, enpresa txiki eta ertainak bere eraldaketa digitalean babesten dituzten horiek.

2019an, Interreg Europe “S34GROWTH” Proiektuaren esparruan, Euskadik eskualdeko ekintza-plana abiarazi beharko du, berrikuntzako euskal ekosistemaren eta eskualdeko beste ekosistema batzuen arteko konexio handiagoa lortzea

ahalbidetzen duten ekintzak zehazte aldera. Zehazki, eskualde arteko lankidetzaz sustatze aldera, hausnarketa laguntzen pilotu-proiektu baten definiziorantz bideratzen da; horrek, berrikuntza-txeke izenarekin ezagutzen direnen bidez, Basque Digital Innovation Hub (BDIH) Europako beste Digital Innovation Hub batzuekin konektatzea ahalbidetuko du.

BDIHren helburua da, modu erraz eta errentagarri batean, euskal ETE industrialen esku jartzea aktiboen konektatutako sare bat, honakoek osatuko dutena: azpiegiturak, laborategiak, ekipamenduak, software eta gaitasun zientifiko-teknologiko berritzaile eta bikainak fabrikazio aurreratuaren eremuan. Eskaintza horrek emango die aukera enpresei produktuak edo prozesuak ezagutzeko, frogatzeko edo garatzeko balizko beharrak asetzeko, I+G proiektuak egiteko, eskalatua, testaketa, prestakuntza eta demostrazioa, betiere 4.0 industriara orientatuta. Aktibo garestiak direnez, BDIH ezin da gure ETEen eraldaketa digitala azkartzeko saiakuntza-banku nabarmen guztiekin ekipatu. Hori dela-eta, beharrezkoa da gure BDIH beste Digital Innovation Hub batzuekin konektatzea ahalbidetzen duen tresna bat abian jartzea, instalazio gehigarrietara sartu ahal izateko, falta diren eskumenak osatzeko eta zerbitzu berriak garatzeko.

Merkatu digital bakarra amaitzeari dagokionez, 2019an zehar, Euskaditik jarraituko da legegilekideek onartzeke dituzten proposamenen segimendua egiten, zehazki, hauena: egile-eskubideen inguruko neurrien multzoa; zibersegurtasunari buruzko proposamenak; pribatutasun digitalari buruzko proposamena; lineako plataformen inguruko proposamena; lineako salerosketako kontratuen inguruko proposamenak; errendimendu altuko informatikako enpresa komun bat sortzeko proposamena; sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeko proposamena eta Europako Zibersegurtasunaren Industria-, Teknologia- eta Ikerketa-eskumenen Sareko Zentroa sortzeko proposamena.

1. ERANSKINA

EUSKADIK ESKUALDEETAKO LANTALDEAREN OSOKO BILKURETAN IZANDAKO PARTE-HARTZEA LABURBILTZEN DUEN KOADROA

Ekitaldia	Ordezkaria	Jarduketa	Data
127. osoko bilkura	Marian Elorza, Kanpo Harremanetako Idazkari Nagusia	-ALDE Talde Politikoaren Bilera	2018-01-31
		-Espainiako Delegazioaren bilera	
		-Osoko bilkura	2018-02-01
128. osoko bilkura	Marian Elorza Kanpo Harremanetako Idazkari Nagusia	-ALDE Talde Politikoaren Bilera	2018-03-22
		-Espainiako Delegazioaren bilera	
		-Osoko bilkura	2018-03-23
129. osoko bilkura	Marian Elorza Kanpo Harremanetako Idazkari Nagusia	--ALDE Talde Politikoaren Bilera	2018-05-16
		-Espainiako Delegazioaren bilera	
		-Osoko bilkura	2018-05-17
130. osoko bilkura	Marian Elorza Kanpo Harremanetako Idazkari Nagusia	-ALDE Talde Politikoaren Bilera	2018-07-04
		-Espainiako Delegazioaren bilera	
		-Osoko bilkura	2018-07-05
131. osoko bilkura	Marian Elorza Kanpo Harremanetako Idazkari Nagusia	-ALDE Talde Politikoaren Bilera	2018-10-09
		-Espainiako Delegazioaren bilera	
		-Osoko bilkura	2018-10-10
132. osoko bilkura	Marian Elorza Kanpo Harremanetako Idazkari Nagusia	-ALDE Talde Politikoaren Bilera	2018-12-05
		-Espainiako Delegazioaren bilera	
		-Osoko bilkura	2018-12-06

2. ERANSKINA

**EUSKO JAURLARITZAK ESQUALDEETAKO LANTALDEAN
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Irizpenaren izena	Prestatutako zuzenketak	Aurkeztutako zuzenketak	Onartutako zuzenketak
ENVE-VI/025: ESPEZIE GATAZKATSUEKIKO KOEXISTENTZIA SUSTATZEA NATURA BABESTEARI BURUZKO EB-REN ZUZENTARAUEN ESPARRUAN	12	12	9
COTER-VI/034: EUROPAR BATASUNeko FINANTZEN ETORKIZUNARI BURUZKO HAUSNARKETA-DOKUMENTUA	6	3	3
RESOL-VI/028: EUROPAKO BATZORDEAREN 2018KO HAZKUNDEARI BURUZKO URTEKO AZTERLAN PROSPEKTIBOARI BURUZKO EBAZPEN PROIEKTUA	1	1	1
ECON-VI/028: DEFENTSAKO EUROPAKO FUNTS BATI BURUZKO PROPOSAMENA	4	4	2
CIVEX VI/028: MIGRAZIOKO EUROPAKO AGENDA EGITEA	2	2	2
SEDEC 33 IDENTITATE EUROPARRA INDARTZEA HEZKUNTZAREN ETA KULTURAREN BIDEZ	7	5	5
SEDEC 35 ONDARE KULTURALA BALIABIDE ESTRATEGIKO GISA	5	5	5

KHINK EBren aurrean burututako jardueren txostena

RESOL 31 ERRESUMA BATUAREN EBTIK ATERATZEKO ERABAKIAK EBKO TOKIKO ZEIN ESKUALDEKO ENTITATEENTZAT DITUEN ONDORIOEN INGURUKO EBAZPENA	3	3	3
NAT-VI/026: TOKIKO ETA ESKUALDEKO PIZGARRIAK DIETA OSASUNGARRIAK ETA JASANGARRIAK SUSTATZEKO	5	5	5
COTER-VI/036: HAZKUNDEA ETA KOHESIOA SUSTATZEA EBKO MUGAKO ESKUALDEETAN	4	4	3
COTER-VI/039: EMISIO GUTXIKO MUGIKORTASUN BATERANTZ	2	2	2
ENVE-VI/030: 2020TIK AURRERAKO KLIMA- GOBERNANTZA IKUSPEGI EUROPAR ETA GLOBAL BATETIK: KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO NAZIO BATUEN ESPARRU- KONBENTZIOAREN EKARPENA COP25ARI	5	5	5
NAT-VI/031: ARRISKUAREN EBALUAZIOA ELIKADURA-KATEAN	2	2	2
NAT-VI/035: EUROPAKO ITSAS ETA ARRANTZA FUNTSA (FEMP)	3	3	1
RESOL-VI 032: EUROGUNERAKO POLITIKA EKONOMIKOEI BURUZ ETA 2019KO HAZKUNDEARI BURUZKO URTEKO AZTERLAN PROSPEKTIBORA BEGIRA	2	1	1
SEDEC-VI-039: HEZKUNTZA DIGITALEKO EKINTZA-PLANA	2	2	2
SEDEC-VI/045: EUROPA INDARTSUAGOA ERAIKITZEN: GAZTERIA, HEZKUNTZA ETA KULTURAKO POLITIKEN PAPEREA	1	1	1

KHINK EBren aurrean burututako jardueren txostena

COTER-VI/050: EUROPA KONEKTATU MEKANISMOA	6	6	6
CIVEX VI 21: EUROPARI BURUZ HAUSNARTZEA: ESKUALDE ETA TOKI MAILAKO ERAKUNDEEN AHOTSA EUROPAR BATASUNARENGANAKO KONFIDANTZA BERREZARTZEKO	8	6	6
COTER-VI/048 MUGAZ GAINDIKO MEKANISMOA	5	5	3
COTER-VI/049 EUROPAKO PLUS FUNTS SOZIALA	2	2	2
ECON-VI/039 INVESTEU PROGRAMA	1	1	1
GUZTIRA	88	80	70

3. ERANSKINA

BESTE KIDE BATZUEK PRESTATUTAKO ETA EUSKADIREKIN BATERA ESKUALDEEN LANTALDEAN AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Zuzenketaren eragilea	Aztertutako zuzenketen kopurua	Babestutako zuzenketen kopurua
Andaluzia	132	85
Aragoi	41	25
Asturias	11	11
Balear Uharteak	20	16
Kanariar Uharteak	64	52
Gaztela - Mantxa	30	30
Gaztela eta Leon	100	12
Katalunia	9	7

KHINK EBren aurrean burututako jardueren txostena

Extremadura	35	29
Galizia	18	16
Errioxa	72	53
Madril	32	17
Murtzia	28	17
Nafarroa	12	10
Valentzia	14	14
ALDE talde politikoa	31	20
GUZTIRA	649	414

4. ERANSKINA

EUROPAR BATASUNeko GAI EKONOMIKO ETA FINANTZARIOEN KONTSEILUARI (ECOFIN) ATXIKITAKO LANTALDEEN BILERAK, EUSKADIREN PARTE-HARTZEA IZAN DUTENAK

1. Zergei buruzko D4 Taldeak egindako bilerak, zuzeneko zergak eta zeharkako zergak jorratzeko:

- Zuzeneko zergak: informazioa automatikoki partekatzeko betebeharra fiskalitatearen eremuan eta komunikazioaren menpeko mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez (DAC6); sozietateen zergaren oinarri komuna (BICIS); «Fiscalis» programa fiskalitatearen eremuko lankidetzarako, etab.
- Zeharkako zergak: BEZaren araubidearen arau batzuen harmonizazioa eta sinplifikazioa eta estatu kideen arteko trukeen zergapetzearen behin betiko araubidea; batasunaren barruko operazioekin lotutako BEZaren salbuespenak; ziurtatutako subjektu pasiboa; zerga bereziak; fiskalitatea digitala, etab.

Data hauetan egindako bileretan egon da: urtarrilak 24 eta 26; otsailak 1, 13 eta 22; martxoak 7; apirilak 11 eta 16; maiatzak 2, 14 eta 24; ekainak 4-5, 12 eta 13; uztailak 2; irailak 3, 4, 5, 11-12, 13, 24, 26 eta 27; urriak 4, 8, 11, 16, 23-24, 25, 29 eta 31 eta azaroak 8, 9, 12 eta 21. Guztira, 38 bilera.

2. D5 Taldea, Jokabide Kodea: enpresen fiskalitateari eta dagozkion azpitaldeei buruzkoa:

- Jokabide Kodea, enpresen fiskalitateari buruzkoa:
- Jokabide Kodearen azpitaldeak.

Bilera hauetara joan da: Otsailak 2 eta 14; martxoak 16; apirilak 12; maiatzak 31; irailak 21; urriak 12 eta azaroak 15. Guztira, 8 bilera.

5. ERANSKINA

POLITIKA PUBLIKOEN ARLO DESBERDINETAKO EKITALDI ETA BILEREN INGURUKO ZENBAIT JARDUERA

- Urtarrilak 11: ERLAko (Asiloari eta immigrazioari buruzko Europako Tokiko eta Eskualdeetako Agintaritzen Sarea) kideen bilerak (urtarrilak 11, martxoak 8, apirilak 11 eta azaroak 22). Bileretan, migrazioarekin lotutako finantzazioa, politikak eta foro europarrak jorratu ziren, baita etorkizunera begira mintegi bat antolatzeko aukera ere. Iritziak trukatu ziren Europako Batzordearen ordezkariekin (DG EMPL eta DG HOME) eta migrazio-erronkei erantzuteko SHARE euskal ekimena aurkeztu zen.
- Urtarrilak 12, apirilak 10 eta irailak 11: Parte-hartze telematikoa Innobasquek zuzendutako Fabrikazio Aurreratuko Nazioarteko Lantaldearen bileran.
- Urtarrilak 18: Bilerak Europako Batzordeko Enplegu eta Gizarte-gaietarako Zuzendaritzaren ordezkariekin (urtarrilak 18 eta irailak 19). Bruselako eskualde-bulegoak koordinatzeko taldeak eskatuta enpleguari eta gizarte-gaiei buruz antolatutako bilera horietara joan zen. Horietan, gai nagusia izan zen gizarte-eskubideen Europako zutabea (urtarrilak 18), baita 2021-2027 Europako Plus Gizarte Funts (FSE+) berriaren arautegiaren proposamenak eta funtsentzako xedapen komunak Arautegia ere (irailak 19).
- Urtarrilak 18: zahartze aktibo eta osasuntsuari buruzko jardunaldi batera joan zen; gaia EBren ikuspegitik jorratu zen.
- Urtarrilak 30 eta otsailak 1: Zuid-Holland probintziarako lan-misio bat egin zen Eusko Jaurlaritzak Interreg Europe “S34GROWTH” proiektuan duen parte-hartzearen esparruan. Misioaren helburua zen zuzenean ezagutzea Holandako hegoaldeko berrikuntza-ekosistema eta gure lurraldeko eragileen arteko konexio-maila handiagoa ahalbidetzen duten tresnen baterako diseinurako oinarriak ezartzea.
- Urtarrilak 24: migratzaileen gizarteratzearen eremuko EBren funtsak ahalik eta hoberen erabiltzeko tresnen gida abian jartzeari buruzko mintegi batera joan zen.
- Urtarrilak 24: energiako espezializazio adimenduneko plataformaren “Smart Grids” lankidetzaren hitzarmenaren bileran parte hartu zen SPRIren eta Energiaren Euskal Klusterraren ordezkariekin batera.
- Otsailak 1: Ihobek eta Euskadiren EBko Delegazioak CRPMren Klima-aldaketako Task Forcen bileran parte hartu zuten, non, besteak beste, gai hauek jorratu ziren: klima-ekintzaren finantzazioa hurrengo urte anitzeko finantza-esparruan eta Pariskoaren ondorengo akordioa.
- Otsailak 2: Eskualdeetako Lantaldeak honen inguruan antolatutako ekitaldira joan zen: “EU Aquaculture – Farmed in the EU regions”.
- Otsailak 7: CRPMren Migrazioko Task Forcen bilera eta lanak (otsailak 7 eta azaroak 6).

- Otsailak 7: Arku Atlantikoaren (CRPM) itsas-energia berriztagarriei buruzko lantaldearen bileran parte hartu zen, besteak beste, sektore honen finantzazio-aukeren inguruan eztabaidatzeko.
- Urtarrilak 25: CRPMren bilera DG REGIOren zuzendari nagusia den Marc Lemaîtreekin kohesio-politikaren eta Batasunaren aurrekontuaren etorkizuna aztertzeko.
- Otsailak 13: EIT Urban Mobility Erakundearen 2018ko deialdiaren inguruko informazio-jardunaldira joan zen.
- Otsailak 19, ekainak 11, azaroak 6 eta abenduak 4: ERRIN Sarearen RIS3 lantaldearen bilerak antolatzen dira; Euskadik horien zuzendaritzan hartzen du parte Helsinki Eskualdearekin eta Sud Eskualdearekin (Provence-Alpes Côte d'Azur).
- Otsailak 22-23: Europako Batzordeko Barne-merkatu, Industria, Ekintzailtza eta ETEen Zuzendaritza Nagusiak Bruselan antolatutako EU Industry Days ekitaldian parte hartu zen.
- Otsailak 23: Vanguard Initiative sareko delegazio txiki batekin parte hartu zen Europako Batzordeko Ikerketa eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiaren zuzendaria den Jean David Malórekin izandako bilera batean, hain zuzen ere, etorkizuneko Europa Horizontea programaren eta espezializazio adimenduneko arloetako inbertsioetarako berrikuntzako eskualde anitzeko funtsaren arteko sinergiak sortzeko aukerak aztertze aldera.
- Otsailak 21 eta maiatzak 24: autonomia erkidegoen bulegoen bilerak Bruselan Batasuneko Funtsen zuzendari nagusiarekin, zehazki, 2021-2027 Urte anitzeko Finantza-esparruari buruzko negoziazioak eta kohesio-politikaren legegintza-paketearen arautegiak jorratzeko.
- Otsailak 28: Zahartze Aktibo eta Osasuntsuko Berrikuntzarako Europako Elkartearen bazkideen konferentzian parte hartu zen, Eusko Jaurlaritza horren kidea baita.
- Martxoak 9: Bilera Paragon Europeoren zuzendari exekutiboa den Anton Theumarekin, Malta eta Euskadiren arteko lankidetzak-aurerak aztertze aldera fabrikazio aurreratuaren eta nanoteknologiaren arloetan.
- Martxoak 15: Eskualdeetako Lantaldean (Brusela) Interreg Europe “S34GROWTH” proiektuaren emaitzak hedatzeko mintegia.
- Martxoak 20: UE27 eskualdeetan Erresuma Batua ateratzeak izango duen eragina ebaluatzen duen Eskualdeetako Lantaldearen txostena aurkezteko mintegi batera joan zen.
- Martxoak 20: Europako Parlamentuan egindako giza bisei buruzko mintegi batera joan zen.
- Martxoak 21: AREPO sareko beste eskualde batzuekin antolatu zen tokiko produktuak sustatzeko ekitaldia.
- Apirilak 11: Interreg Europe proiektuko idazkaritzak Rovaniemin antolatutako bileran parte hartu zen, Interreg Europe proiektuen eta Modernizazio

- Industrialerako Espezializazio Adimenduneko Plataformaren lankidetzahitzarmenen arteko balizko sinergieiei eta osagarritasunei buruz eztabaidatze aldera.
- Apirilak 12: Rovaniemin (Finlandia) apirilaren 12an ospatutako Modernizazio Industrialerako Espezializazio Adimenduneko Plataformaren Zuzendaritza Batzordearen hirugarren bileran parte hartu zen.
 - Apirilak 23: Bio Based Industries Joint Undertaking lankidetzahitzarmenaren 2018ko deialdiko informazio-jardunaldira joan zen.
 - Apirilak 19: *think tank* CEPSEk antolatutako jardunaldi batera joan zen, errefuxiatuek harrera-herrialdeetan laneratzeko dituzten zailtasunei buruzkoa.
 - Apirilak 26: Euskadiko Europako Gizarte Funtsaren Segimendu-batzordearen bilera batera joan zen.
 - Apirilaren 24tik 26ra: stand bat jarri zen Bruselako SeaFood Azokan.
 - Maiatzak 1: 2018ko proposamenen deialdiari buruzko informazio-jardunaldian parte hartu genuen – Barne-merkatuko eta hirugarren herrialdeetako nekazaritza-produktuei buruzko informazio- eta sustapen-ekintzak egiteko programa sinpleak eta askotarikoak.
 - Maiatzak 17: Europako Parlamentuan egindako Brexitaren osteko EBren eta Erresuma Batuaren arteko etorkizuneko harreman komertzialari buruzko txostenaren aurkezpena joan zen.
 - Maiatzak 23: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratzeko zuzendariak klima-aldaketara lurralde-plangintzaren bidez egokitze euskal esperientzia aurkeztu zuen, hain zuzen ere, Europako Aste Berdearen esparruan ICLEI eta CRPM sareek antolatutako ekitaldi honetan: "*Building resilience to climate change: developing regional- urban approaches*"
 - Maiatzak 23 eta 24: European Business Summit Gailurrean parte hartu zen.
 - Maiatzak 28: Vanguard Initiative Sareko zuzendarien bileran parte hartu zen, sarearen etorkizunari eta bere estrategiak urte anitzeko finantza-esparru berrian izango duen eraginari buruzko erabakiak hartze aldera.
 - Maiatzak 29: honen inguruko ponentzia bat aurkeztu zen Bruselako Norway Housen: "Enhancing the long-term competitiveness of the forest sector in a green economy: Policies for forest-based bioeconomy in Europe".
 - Ekainak 12: autonomia erkidegoen bulegoak Bruselan bildu ziren DG REGIO Zuzendaritzako Espainia/Portugal Unitatearen ordezkariekin, zehazki, aurkeztutako 2021-2027 arautegi berriak aztertzeke.
 - Ekainak 12 eta 13: parte hartu zen Seinäjokin (Finlandia) ospatutako European Regions for Innovation in Agriculture, Food and Forestry sarearen urteko konferentzian. AZTIko euskal hizlari baten parte-hartzea koordinatu zen.
 - Ekainak 20: European Cyber Security Organisation (ECSO) Erakundearen Batzar Nagusian parte hartu zen Zibersegurtasuneko Euskal Zentroaren izenean.
 - Ekainak 25: Bilera MADEX eta SIDEREXekin klusterrentzako finantzazio europarreko aukerak aztertzeke.

- Uztailak 9: Eskualdeetako Lantaldeko hizlaria den Markku Markkulak etorkizuneko Europa Digitala 2021-2027 programaren inguruan antolatutako bilera batean parte hartu zen. Bileraren helburua zen eskualdeko eta tokiko ordezkariak Eskualdeetako Lantaldeak Europa Digitala programaren inguruan aurkeztutako irizpen-zirriborroari buruz duten iritzia ezagutzea.
- Irailak 3: Europako Ekonomia eta Gizarte Komitean egindako 2021-2027 Justizia, Eskubide eta Balioen Funts berriari buruzko audientzia publiko batera joan zen.
- Irailak 4: CRPMren Klima-aldaketako Task Forcek antolatutako bileran parte hartu zen, “EBren klima-ekintzako epe luzerako estrategiari” buruzko kontsulta publikoari eman beharreko erantzun komuna prestatze aldera.
- Irailak 6 eta 7: “GMO-free Regions Network” Sarearen urteko konferentzian parte hartu zen eta Eusko Jaurlaritzaren horren inguruko politikari buruzko ponentzia bat aurkeztu zen.
- Irailak 13: RISE Fundazioak antolatutako EBko abeltzaintzaren etorkizunari buruzko konferentziara joan zen.
- Irailak 13: Energiako Espezializazio Adimenduneko Plataformaren esparruan, Eskoziak eta Euskadik batera zuzendutako “Itsas-energia Berriztagarriak” lankidetzaz hitzarmenaren bilera.
- Irailak 25: kohesio-politikaz arduratzen den Corinna Cretu komisarioaren urteko topaketa egin zen Bruselan, zehazki, Europako eskualdeen ordezkariekin.
- Irailak 26: Europako Parlamentuan honen inguruan antolatutako konferentzian parte hartu zen: “Ibilgailu elektrikoaren energia-eskariaren igoera”.
- Urriak 2: Auvergne Rhône-Alpes eskualdeak modernizazio industrialeko espezializazio adimenduneko Europako plataformaren esparruan zuzendutako teknologia medikoei buruzko lankidetzaz hitzarmenaren bileran parte hartu zen.
- Urriak 8: Bruselako Oslo eskualdearen bulegoan egindako argitalpen honen aurkezpenera joan zen: *A better environment to age in - Working towards age-friendly cities in the Nordic region, Nordic Welfare Council-ek* egindakoa.
- Urriak 9: bilera bat egin zen delegazioan Galeseko ordezkariekin, EIE Funtsen kudeaketaz eta etorkizuneko harremanen eta Makroeskualde Atlantikoaren inguruko lankidetzaz atlantikoaz arduratzen direlako.
- Urriak 9: Eskualdeen eta Hirien Europako Astearen esparruan, Euskadiren EBko delegatua den Marta Marinek Europako Batzordeak koordinatutako ekitaldi honetan esku hartu zuen: “Cohesion policy boosting regional industrial transition based on Ris3”.
- Urriak 16: bilera bat egin zen Trentoko probintziaren ordezkariekin Euskadiko Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren inguruan, interesa zutelako Euskadik estrategia diseinatzean eta ezartzean izandako esperientzia ezagutzeko.
- Urriak 17: Parte-hartzea NEPTUNE Proiektuaren aurkezpenean, azeleragailua dena sektore arteko eta mugaz gaindiko balio-kate berrien garapenean, zehazki, ETEak zuzenean babestuz.

- Urriak 18: Nafarroarekin eta Akitania Berriarekin batera, jardunaldi hau antolatu zen Eskualdeetako Lantaldean: “Interregional Cooperation through Smart Specialisation: good practises and future”.
- Urriak 18: Bruselako Skåneko eskualde bulegoan antolatutako ekitaldi batera joan zen. Horretan, Erasmus+ programak finantzatutako eta Erresuma Batuko, Belgikako eta Suediako zenbait tokiko eta hezkuntzako agintaritzek burututako “Gazte heldu berrien gizarteratzea” proiektua aurkeztu zen.
- Urriak 22: EBko Bioekonomiari buruzko Maila Altuko Konferentzia batera joan zen.
- Urriak 23 eta 24: Vigon egindako Estrategia Atlantikoaren “Atlantic Stakeholders Conference” urteko konferentziara joan zen.
- Urriak 29: Euskadiren EBko Delegazioak eta Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak antolatutako honen inguruko audientzia publikoan parte hartu zuten: “Klima-finantzaziorako sarbidea erraztea estatukoak ez diren eragileentzat”.
- Azaroak 7: “Memoria, Emigrazioa, Immigrazioa, Gizarteratzea” proiektuaren aurkezpenera joan zen, Europa Herritarrentzat programak finantzatutakoa.
- Azaroak 19: Euskadiren EBko delegatuak “European Broadband 2018” saria jaso zuen, Europako Batzordeak Eusko Jaurlaritzari eman diona kategoria honetako finalista izateagatik: “Lurralde-kohesioa landa-eremuetan eta urruneko eremuetan”.
- Azaroak 29 eta 30: Euskadiren EBko Delegazioaren bilera Interreg Europe “S34GROWTH” proiektuaren zuzendaritza-batzordearekin, etorkizuneko ekintza-planak idazteko ideiak partekatzeko helburuarekin.
- Abenduak 4: Hiriko Agendan dagoen eta maila anitzeko aliantza bat den Migratzaileak eta Errefuxiatuak Gizarteratzeko Elkartearen konferentziara joan zen, zehazki, Eskualdeetako Lantaldearen egoitzan.
- Abenduak 4: Klima-politikei eta Baso-bioekonomiari buruzko tailer batean parte hartu zen.
- Abenduak 12: Arku Atlantikoak (CRPM) itsas-energia berriztagarriei eta berrikuntzari buruz antolatutako *hub meetings* bileretan parte hartu zen.
- Abenduaren 7tik 12ra: Lehenengo Euskal Astea antolatu zen Bruselan, Euskadiren EBko Delegazioarekin eta Euskal Etxearekin elkarlanean.
- Abenduak 13: ADMA Proiektuak garatutako metodologia balioztatzeke mintegi batean parte hartu zen. Horren helburua da fabrikazio aurreratua sustatzeko Europako zentro bat ezartzea, ETEak laguntzeko fabrikazio aurreratuko konponbideak ezartzen eta bere antolakuntzak fabrika lehiakorragoak, modernoagoak eta jasangarriagoak bihurtzen.
- Abenduak 18: parte hartu zen Start-up Olé 2019 proiektuaren aurkezpenean, zehazki, Belgikako Espainiako Enbaxadan.

6. ERANSKINA

2018AN EUSKADIREN LANKIDETZA IZAN DUTEN SARE NAGUSIAK

- ERLAI: Asilo eta Immigrazioari buruzko Europako Tokiko eta Eskualdeetako Agintaritzak
- Zahartze Aktibo eta Osasungarriaren alorrean Berriztatzeko Europar Elkarte
- CRPM (Periferiako eta Itsasertzeko Eskualdeen Konferentzia): Migrazioaren kudeaketari buruzko lantaldea; kohesioari buruzko lantaldea; klima-aldaketari buruzko Task Force; arrantzari buruzko lantaldea; garraioari buruzko lantaldea. Parte-hartzea Arku Atlantikora atxikitako lantaldeetan; Espezializazio eta Berrikuntzako Lantaldean eta Kultura eta Turismoko lantaldeetan.
- Vanguard Ekimena, gaur egun Europako 32 eskualde industrializatu biltzen dituen. Euskadik 3 lantaldetan parte hartzen du: Eragin Politikoa, Komunikazioa, eta Ekintza pilotuen monitorizazioa
- European Cyber Security Organisation
- CORAL (Community of Regions for Assisted Living)
- ERRIN (European Regions for Research and Innovation). Euskadi RIS3ren lantaldeko koliderra da. Sormen eta Diseinu Lantaldean ere parte hartzen du.
- ERIAFF Sarea (European Regions for Innovation in Agriculture, Food and Forestry), nekazaritza, elikadura eta baso-gaietan berritzaileak diren europar eskualdeak biltzen dituen
- EUROMONTANA sarea, mendi-inguruneetarako europar elkarte. Euskadik du haren presidentzia.
- CRPMren (Periferiako eta Itsasertzeko Eskualdeen Konferentzia) Arku Atlantikoko Batzordearen baitan: Garraio, Berrikuntza, Estrategia Atlantiko, Arrantza, Turismo eta Itsas Energia Berriztagarriari buruzko Lantaldeak.
- Jatorrizko Produktuen Europako Eskualdeen Elkargoa (AREPO)
- GEORik gabeko Eskualdeen Sarea
- REGAL (Gastronomia eta Elikaduraren aldeko Eskualdeak)
- RICC Sarea (Regional Initiative for Culture and Creativity). Euskadi sareko zuzendaritzaren kidea da Europako 26 eskualde biltzen ditu Industria Kultural eta Sortzaileen eta RIS3ren eremuan
- NPLD Sarea/Network to Promote the Linguistic Diversity: bai Eusko Jaurlaritza, bai Bizkaiko Foru Aldundia sarearen partaideak dira.
- EARLALL Sarea/ European Association of Regional and Local authorities for Lifelong Learning. Eusko Jaurlaritzako LHko Sailburuordetza sarearen presidentea da.
- NECSTOUR Sarea/ Network of European Regions for Competitive and Sustainable Tourism
- EUNIC Sarea: EBko Kultura Institutu Nazionalak biltzen dituen sarea. Etxepare Institutua EUNIC Brusela Klusterreko kide elkartua da
- EAFA: Ikaskuntzarako Europar Aliantza
- PLATFORMA: Tokiko eta eskualdeko agintaritzen europar plataforma, lankidetzaren deszentralizatuaren alorrean lan egiten duena. Euskal Fundoa eta Lankidetzaren Euskal Agentzia horretako kideak dira.